



**TOLOSALDEA
SARETZEN**



2018-2025 PLAN ESTRATEGIKOA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA



TOLOSALDEA
GARATZEN

naider

Sustatzailea:



Idazkaritza teknikoak:

n a i d e r

TOLOSALDEA SARETZEN PLAN ESTRATEGIKOA

1 HELMUGA. TOLOSALDEA 2025, BIDAIA BAT UTOPIARANTZ	1
1.1 EKONOMIA KOOPERATIBOA, INDUSTRIA MOTORTZAT HARTUTA	2
ESKUALDE EKINTZAILEA, ENPLEGU EGONKOR ETA KALITATEZKOAREKIN	2
INDUSTRIA (AURRERATUA), BERRIKUNTZA (GAITASUN TEKNOLOGIKOA) ETA ADIMENA (TALENTUA) HIRUKIAN OINARRITUTAKO ESKUALDEA	2
4.0 INDUSTRIA PARADIGMA OROKORTZEA	3
ESKUALDEAN BERTAN CHAMPIONS MAILAKO ENPRESA HIRUKOTE BAT DU TOLOSALDEAK	4
TOLOSALDEKO INDUSTRIAREN KONTRATU SOZIALA EKONOMIA ZIRKULARRAREKIN ETA ERANTZUKIZUNAREKIN	5
ELEKTRO-MUGIKORTASUNAREN ERREFERENTZIA GUNEA	5
1.2 NATURAN OINARRITUTAKO ESKUALDEA, HIRI ETA LANDA-EREMUAREN ARTEKO OREKAN	7
NATURA ESKUALDEKO KULTURA- ETA BIZIKIDETZA EREDUAREN MUINEAN DAGO	7
BIKAINTRASUNERAKO BIDEAN GAINERAKO JARDUERA EKONOMIKOEN KUDEAKETAN	7
GARRAIO PUBLIKOAN ETA ELEKTRIKOAN OINARRITUTAKO MUGIKORTASUNA	8
ESPAZIO PUBLIKOAK BERRESKURATZEA	9
ENERGIA-ERAGINKORTASUNA, ESKURAGARRITASUNA, ERAIKINAK ETA DISTRITUAK BIRGAITZEA	10

BERRIZTAGARRIETAN OINARRITUTAKO ENERGIA- EKOIZPEN EREDU DESKARBONIZATUA ETA DEZENTRALIZATUA	10
ERREPIDE-SAREA NATURAN INTEGRATZEA. N-1 AUTOBIDEA NATURALIZATZEA	11
LANDA-INGURUNE SENDOTUA ETA PROFESIONALIZATUA	12
1.3 TOLOSALDEA, “KO” ESKUALDEA: KO- LABORATIBOA, KO-EKINTZAILEA, (E)KO- ARDURATSUA ETA KO-NEKTATUA	14
TOLOSALDEA, BERDINEN ARTEKO GIZARTE- KOOPERAZIOKO SISTEMA BAT	14
ESKUALDE EKO-ARDURATSUA ETA INGURUMEN- BALIOETAN HEZIA	18
EKINTZAILEEN ESKUALDEA, PERTSONA ETA TALDE EKINTZAILEEI PRESTIGIOA EMATEN DIENA	18
TOLOSALDEA ESKUALDE DIGITALA DA, ETA BIZI DEN MUNDUAREKIN SARE BIDEZ KONEKTATZEN DA	19
TOLSALDEA EUSKALDUNA DA	20
KONURBAZIO GISA ERATUTAKO ESKUALDEA	21
2 ABIAPUNTUA.	23
INDUSTRIA EKONOMIAREN MOTOR GISA	24
ONDO KOKATUTAKO ESKUALDEA, BIZITZA-MAILA ALTUAREKIN ETA GIZARTE-HORNIDURA UGARIREKIN	25
EGUNGO SISTEMA SOZIO-EKONOMIKOA POBRETZEKO ARRISKU BIZIA	27
JOERA GLOBAL BERRIAK: 4.0 INDUSTRIA ETA GAUR EGUNGO EKONOMIA ZIRKULARRA	29
IKUSEZIN BIHURTUTAKO DIMENTSIOA: ZAINTZEN EKONOMIA	34
GAUR EGUN ERAKUNDE POLITIKO KOMUN BAT FALTA DA	36
TOLOSALDEA SARETZEN, EKIMEN PARTEKATUA	37

3	TOLOSALDEA SARETZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN IKUSPEGIA	38
	PLAN ESTRATEGIKOA ULERTZEKO BESTE MODU BAT	38
	PLANAK KONPROMISO POLITIKOA ETA FINANTZA ARLOKOA DU	39
4	“EKO-INDUSTRIA 4.0” LAN-PROGRAMA. INDUSTRIA MOTOR GISA DUEN EKONOMIA KOOPERATIBO BAT.	42
4.1	HELBURU ESTRATEGIKOAK	42
	LEHENIK	42
	ENPRESA-OINARRIA DINAMIZATZEA ETA INDARTZEA	42
	BIGARRENA	47
	4.0 INDUSTRIA AURRERATUA BULTZATZEA	47
	HIRUGARRENA	49
	BERRIKUNTZA ETA ENPRESA-GARAPENEN INTERESGUNE BAT GARATZEA	49
	ELEKTROMUGIKORTASUNAREN EREMUAN	49
	LAUGARRENA	51
	GipuzkoaN NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN INDUSTRIA-GARAPENAREN BURU IZATEA	51
	BOSTGARRENA	52
	EKONOMIA ZIRKULARRA BULTZATZEA ESKUALDEKO ENPRESETAN	52
4.2	LAN-ILDOAK	55
	4.2.1 BERRIKUNTZA DINAMIZATZEA	56
	1. Programa	56
	4.0 EKO-INDUSTRIA HEDAPEN- ETA SENTSIBILIZAZIO-JARDUERAK BERRIKUNTZAREN, 4.0 INDUSTRIA AURRERATUAREN ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN INGURUAN	56
	2 Programa	57

4.0 ERAGILEAK BERRIKUNTZAREN, 4.0 industria AURRERATUAREN ETA eKo-BERRIKUNTZAREN ERAGILE MOBILIZATZAILEAK	57
3 Programa	58
ASTINDU ! IDEIA BERRITZAILEAK ASTINTZEA	58
4 Programa	59
ELIKA-INDUSTRIA NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN INDUSTRIARI BULTZADA EMATEA	59
5 Programa	61
MERKATARITZA BAI MERKATARITZA DINAMIZATZEKO JARDUERAK	61
4.2.2 TALENTUA PRESTATZEA ETA ENPRESETARA BILTZEA	62
6 Programa	62
TALENTUA PRESTAKUNTZA ETA GAIKUNTZA ESPEZIALIZATUKO AGENDA	62
7 Programa	63
E-UNIBERTSITATEA UNIBERTSITATEKO GRADUAK ETA GRADUONDOKOAK EZARTZEA ELEKTRO- MUGIKORTASUNAREN ESPARRUAN	63
8 Programa	64
EKIN FONDOA ENPRESA BERRITZAILEENTZAKO BALIABIDEAK	64
4.2.3 ENPRESA BERRITZAILEAK AZELERATZEA	64
9 Programa	66
TEKNO-LAB-AK LABORATEGI KOLABORATIBOAK	66
10 Programa	68
EMUGI TOLOSALDEA ELEKTRO- MUGIKORTASUNEN ENPRESA-PARKEA	68
5 “SMART EKO-HERRIA” LAN-PROGRAMA. NATURAN OINARRITUTAKO ESKUALDE BAT, HIRI ETA LANDA-EREMUAREN ARTEKO OREKAN	69
5.1 HELBURU ESTRATEGIKOAK	69

LEHENA	69
BERRIZTAGARRI eta OINARRITUTAKO ENERGIA-KONTSUMO MINIMOKO HIRIGINTZA-EREDU BATERANTZ BIDEA EGITEA	69
BIGARRENA	72
MUGIKORTASUN-EREDU ERABAT BESTELAKOA ANTOLATZEA	72
HIRUGARRENA	74
HIRIGINTZA ADIMENTSUA BULTZATZEA, NATURAN OINARRITUTAKO SOLUZIOEKIN	74
LAUGARRENA	77
LANDA-EREMUAREN ZEREGINA INDARTZEA, INGURUNE NATURAL BATEN ERAIKUNTZAN	77
5.2.1 ENERGIA-ERAGINKORTASUNA	79
1. Programa	79
EKO-ERAIKI ERAIKUNTZAK ETA DISTRITUAK IRISGARritasun eta ENERGIA-ERAGINKORTASUN PARAMETROEN ARABERA BIRGAITZEA ETA BULTZATZEA	79
2 Programa	81
TOLOSALDEA ZERO ENERGY IA ZERO ENERGIA-KONTSUMOKO ERAIKIN PUBLIKOAK (NEARLY ZERO ENERGY BUILDINGS - NZEB)	81
3 Programa	83
TOLOSARGI ARGITERIA ETA SEMAFOROak ordezte eta SISTEMA ERAGINKORRAGOak ezartzea	83
4 Programa	84
SMART ENERGIA ENERGIA ADIMENTSUA	84
5.2.2 ELEKTRO-MUGIKORTASUNA	85
5 Programa	85
METRO ORIA METRO ORIA (METRO ELEKTRIKO ADIMENTSUA TOLOSALDEA-GOIERRI) PROIEKTU INTERMODALA	85
6 Programa	87

TOLOSALDEA OINEZ OINEZKOENTZAKO BIDEAK ETA BIDEGORRIAK JARTZEA	87
7 Programa	88
IBILGAILU ELEKTRIKOAK IBILGAILU ELEKTRIKOAK EROSTEA ETA ERABILTZEA SUSTATZEKO POLITIKAK	88
8 Programa	89
SMART MUGI MUGIKORTASUN ADIMENTSUA	89
5.2.3 HONDAKINEN KUDEAKETA	90
9. Programa	90
TOLOSALDEA ZERO WASTE HONDAKINEN KUDEAKETA EKO-ARDURATSUA	90
5.2.4 NATURAN OINARRITUTAKO SOLUZIOAK	91
10. Programa	91
N-1 BERDEA	91
N-1 ERREPIDEAREN LANDARE-ERREZELA	91
11 Programa	93
ORIA, HIRIA ORIA IBAIA LEHENGORATUTAKO ETA BALIOA HANDITUTAKO ESPAZIO GISA	93
5.2.5 LANDA-MUNDUKO BIDERAGARRITASUNA ETA IRAUNKORTASUNA	94
12. Programa	94
MILA-BAT	94
“1.000 baserri bateratu, 1.000 enpresa iraunkor”	94
6 “ELKARLANEAN: ‘KO’ KOMUNITATEA LAN- PROGRAMA. TOLOSALDEA, “KO” ESKUALDEA: KO-LABORATIBOA, KO- EKINTZAILEA, (E)KO-ARDURATSUA ETA KO-NEKTATUA	96
6.1 HELBURU ESTRATEGIKOAK	96
LEHENA	96
KOLABORAZIO ETA KO-ERANTZUKIZUN KOLEKTIBOKO BALIOETAN HEZTEA	96

BIGARRENA	97
INTERNETERAKO ESKUBIDEA BERMATZEA	97
HIRUGARRENA	98
ESKUALDEZ GAINDIKO KOOPERAZIO EREDUARI JARRAITUZ LAN EGITEA	98
LAUGARRENA	99
ZAINTZEN EKONOMIAREN BALIOA IKUSARAZTEA	99
6.2 LAN-ILDOAK	100
1. Programa	101
HEZI TA HAZI ESKUALDE HEZITZAILEA	101
6.2.1 ESKUALDE HEZITZAILEA	101
2. Programa	105
EUSKARALDEA	105
TOLOSALDEA, EUSKARALDEA	105
6.2.2 ESKUALDE EUSKALDUNA	105
6.2.3 ESKUALDE DIGITALA	106
3. Programa	106
TOLOSALDEA WI-FREE	106
LANDA-KONEKTIBITATEA	106
6.2.4 ESKUALDE KOLABORATZAILEA	107
4. Programa	107
ESKUALDE +	107
KONURBAZIOAN LAN EGITEA. ESKUALDEZ GAINDIKO EKIMENAK	107
5. Programa	108
ZAINTZA ZAINTZEN ESKUALDEA	108
6.2.5 ZAINTZEN ESKUALDEA	108
7 FUNTZIONAMENDU- ETA GOBERNANTZA- EREDUA	110
7.1 KUDEAKETA-ORGANOAK	110
ZUZENDARITZA BATZORDEA @28ALKATE	111

IDAZKARITZA TEKNIKOA TOLOSALDEA GARATZEN	113
ESKUALDE BILTZARRA TOLOSALDEA SARETZEN	
KONTSEILUA	115
7.2 FUNTZIONAMENDU-EREDUA	117
EKIMEN EGITURATZAILEAK	117
PROIEKTU PROPIOAK	117
PARTE HARTZEKO DEIALDIAK	117
7.3 SEGIMENDU-ADIERAZLEAK	119
ERREFERENTziazko ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK	119
ADIERAZLE OPERATIBOAK	119
7.4 BALIABIDE PROPIOAK ETA FUNTSEN	
MOBILIZAZIOA	124

1 HELMUGA. TOLOSALDEA 2025, BIDAIA BAT UTOPIARANTZ

“Icariarako bidaia” liburuan Étienne Cabet utopiko frantziarrak gizarte libre eta demokratiko bat imajinatu zuen, non berdintasuna eta elkartasuna izango liratekeen hura egituratuko luketen bektoreak. Autore horren liburuak eta haren jarrera sozialek eta politikoek gizarte mailako mugimendu bat sortu zuten, eta mugimendu hori lortu ezineko helburua lortzen saiatu zen: hiri utopikoa eraikitzen, Icaria eraikitzen.

1848ko martxoaren 27an 1.500 icariar baino gehiago lehorreratu ziren New Orleansko kaian; gehienak Frantziatik zetozen, baina baita Europako beste hainbat puntutatik ere, Cabeten gidaritzapean. Helburua beren utopia eraikitzea zen.

Tolosaldeak amesten duen gizarte horretarako bidaia irudikatzen du Icariak. Izan ere, utopikoa izan arren, ez zaio hori aldarrikatzeari utzi behar, eta hutsik egiten ez duten armekin jarraitu behar da eraikitzen: ezagutzarekin, teknologiarekin, Naturarekin eta erantzukizunkidetasun kolektiboarekin.

Etorkizuneko Tolosaldea berdinen arteko gizarte-lankidetzaren sistema baten gainean eraikiko da, eta eskualdearen imajinario kolektiboak honako oinarri hauek izango ditu: konpromiso solidario bat herritar guztiekin, arrazoia garaipena, jakintza eta kultura, erantzukizun ekologikoa eta jakintzak eta teknologiak bultzatutako eredu ekonomiko kooperatibo batez gozatzea”

1.1 EKONOMIA KOOPERATIBOA, INDUSTRIA MOTORTZAT HARTUTA

ESKUALDE
EKINTZAILEA,
ENPLEGU EGONKOR
ETA
KALITATEZKOAREKI
N

Inspiratzen gaituen Tolosaldea eskualde ekintzailea eta langilea da. Eskualdeak **ekonomia dibertsifikatu** batez gozatzen du, eredu **ekonomiko kooperatibo eta iraunkorra oinarrian dela**. Neurri handi batean, industria lehiakor, berritzaile eta teknologikoki aurreratua dira eredu horren euskarriak.


Eskualdeak naturaltasunez hartu ditu lehiakortasunari forma ematen dioten paradigma teknologiko berriak: **4.0 industria** eta **ekonomia zirkularra**. Eragile guztien artean partekatutako konpromisoari esker, enplegu betea bermatu ahal izan da, herritarren errealizazio intelektualari eta pertsonalari laguntzen dioten jardueretan oinarrituz, nazioarte mailako abangoardiako lanaren kalitate- eta baldintza-estandarrak mantenduz, eta beti ere, ingurumen-iraunkortasunaren eta ekonomia zirkularren paradigmarekiko konpromisoaren prozesu global baten esparruan.

INDUSTRIA
(AURRERATUA),
BERRIKUNTZA
(GAITASUN
TEKNOLOGIKOA)
ETA ADIMENA
(TALENTUA)
HIRUKIAN
OINARRITUTAKO
ESKUALDEA

Hauek dira Tolosaldeko komunitatea hezurmamitzen duten hirukiaren aldeak: **4.0 industria, berrikuntza** eta **talentua**, eskualde barruan zein kanpoan sortutako talentua eta, horietan oinarrituta, sorkuntza eta hainbat eragileren arteko berrikuntza-prozesuak bideratzen dira. Hiruki hori eskualdearen industria-agertokiaren motorra da eta esku hartzen duten eragile guztien artean berrindartzen eta berrelikatzen da; alegia, enpresen, lanbide-heziketako zentroen, zentro teknologikoen eta tarteko entitateen artean.

4.0 INDUSTRIA PARADIGMA OROKORTZEA

Eskualdeak **azpiegitura teknologiko propioak** ditu gaur egun, partekatutako ekipamenduekin, eta horiek aukera ematen dute jakintza eta berrikuntza Tolosaldeko enpresetan ezartzeko. Eskualdeko enpresa-egiturak sarean lan egiten du eskualde barneko eta eskualdetik kanpoko **enpresa-arteko lankidetzak-praktika eraginkorren bidez**, inguruko beste hainbat enpresa-gunetako eragileekin, enpresekin eta entitateekin.



150 urteko industrializazioa izan ondoren, Tolosaldeak eskualde bereziki industrialia izaten jarraitzen du, eta balioa ematen die klusterrei eta Euskadiko ehun industrialia osatzen duten enpresa

garrantzitsuenei. Enpresa-oinarri horrek eraldatzen jakin du, eta gaur egun fabrikazio aurreratuaren esparruko joerarik garrantzitsuenak hartzen ditu barnean (materialak, IKTak, robotika malgua, manufaktura gehigarria). Aldi berean, enpresa guztiek 4.0 Industriaren izaera erakusten dute beren diseinu-, manufaktura- eta komertzializazio-funtzioetan (big data erabilera, simulazio-ingeniaritza, sistemen integrazioa, hodei-konputazioa, errealitate areagotua, zibersegurtasuna).

ENPRESA BERRITZAILEEN HUB-A BALIO ALTUKO SEKTOREETAN

Industria-ehun hori etengabe berritzen da, etengabe sortzen baitira **helburu globala duten eta gorabidean diren jardueretan** lan egiten duten enpresa berritzaileak. Industria-oinarri hori **teknologia-zerbitzuko eta enpresa-kudeaketako enpresekin** osatzen da. Eskualdean kokatzen diren enpresa horiek ingurune hurbilari zerbitzua emateaz gain, N-1 errepidearen inguruko industria-korridorean kokatzen diren puntako enpresen eta auzoko

eskualdeen premiei erantzuten diete.

Enpresak eskualde barruko ekintzailatza-prozesuen ondorioz sortu dira, edo beste ingurune batzuetatik hautemanak izan dira,

intereseko
proiektuen
eskura
hainbat
laguntza-,
kokapen- eta



kapitalizazio-tresna lehiakor jartzeagatik.

Tolosaldeak hainbat enpresa-talde lehiakor ditu inguruan, eta talde horiek beren enpresen bezero-zorroa eratzen dute. Baina **ingurunean bertan enpresa-hirukote champions** bat dauka. Hala esaten zaie beren sektorean liderrak direlako mundu mailan.

Enpresa horiek eskualdeko lehiakortasun-lidergoa markatzen dute eta talentua, inbertsioak eta negozio-aukerak erakartzeko hainbat dinamika positibo sortzen dituzte. Tolosaldeko championsak sortzeko erabakitasunez jardun da eta baliabideak **apustu tekno-industrialak garatzearen alde** erabili dira. Izan ere, Lurraldeko erakunde guztiek apustu horien alde egin dute Gipuzkoako industria-paisaia eratzeke.

Ingurunearekin lankidetzan jarduteari esker, Tolosaldea-Goierri ardatza Gipuzkoako industria-garapeneko gune nagusia bihurtu da.



ESKUALDEAN
BERTAN
CHAMPIONS
MAILAKO ENPRESA
HIRUKOTE BAT DU
TOLOSALDEAK

ELEKTRO- MUGIKORTASUNAREN ERREFERENTZIA GUNEA

Izan ere, Tolosaldeak, Goierriarekin lankidetzan, erreferentziazko enpresa-erakargune du bat du elektro-mugikortasunaren inguruan. Hala, eskualdean hainbat produktu eta aukera global sortzen dira ibilgailu elektrikoaren eta hiriko eta hiri arteko mugikortasunaren esparruetarako. Gune horrek hainbat industria- eta teknologia-enpresa ditu, eta horiei guztiei laguntzeko entseguen eta zerbitzu teknologikoen lankidetzak-laborategi bat ere badago. Gune



horren inguruan, gainera, goi mailako unibertsitate-ikasketak eta espezializa

zio-ikastaroak egiten dira, talentu espezializatua eta ekintzailea erakarriz.

TOLOSALDEKO INDUSTRIAREN KONTRATU SOZIALA EKONOMIA ZIRKULARRAREKIN ETA ERANTZUKIZUNAREKIN

“Ekonomia Zirkularrak” eskualdeko industriak ingurumenarekiko konpromisoarekin duen gizarte-kontratua adierazten du. Energia-kontsumoa gutxitzeko prozesu bat egin da, baita energia berriztagarrien aldeko apustu bat ere, eta, horrez gain, diseinuaren prozesua ere optimizatu da. Enpresek informazioa partekatzen dute modu irekian (Open Source, Open Design) eta beren prozesuetan materialen berrerabilera, ber-manufaktura, birziklapena eta gainziklapena (upcycling) txertatzea lortu dute, hondakinak ia 0-ra murriztu arte.

Gainera, Apatta-berri industria-gunea, elektro-mugikortasunaren sektoreko tekno-industriaren enpresa eta entitateen bilgunea da, eta, alde horretatik, eskualdeko industriaren bereizgarri nagusi berria bihurtu da, industria-azpiegitura berdearen adibide.

Gune horretako eraikin guztiak Passive House ereduari jarraituz diseinatu dira, eguzki-energia, energia geotermikoa eta biomasa sortzeko eta erabiltzeko hainbat sistemaren arteko engranaje

perfektu batekin. Hala, sistema horiek beroa eta hotza berreskuratzen eta hondakinak birziklatzeko sistema eraginkorrekin uztartzen




dira, eko-sistema industrial eredugarri batean.

Estrategia zirkularra Apattako

gainerako industria-gunera zabaltzen da. Izan ere, 2017. urtea baino lehenagoko eraikuntza-nabe bakoitzeko estalkietan eta fatxada berdeetan energia-eraginkortasuneko eta paisaia-integrazioarako soluzioak ezarri dira.

Era berean, estalki eta inguratzailerak berdeak asko zabaltzen dira Tolosaldeko industria-gunetan, eta horri esker, CO₂ atzemateko eta finkatzeko gaitasuna biderkatzea lortu da eskualdean.



Hain zuzen, Tolosaldeko enpresa-oinarriak ekonomia zirkularra bildu du DNA lehiakorrean, eta, horri

esker, orain produktuen bizi-zikloa luzatu egin da. Izan ere, diseinu ekonomikoa eta ekologikoa hobea da, hondakinen tratamendua modu bikainean kudeatzen da, eta zerbitzuetan oinarritutako negozio-eredu berrien aukera oso zabala dago (Tolosaldean dagoeneko ez da produktuez hitz egiten, zerbitzuez hitz egiten da) eta faktore horiek guztiek industria-prozesuaren ingurumen-talka gutxitzen dute eta berrerabileran, konponketan, birziklapenean eta birfabrikazioan oinarritutako kontsumo- eta ekoizpen-kultura sortzen dute.

BIKAINASUNERAKO BIDEAN GAINERAKO JARDUERA EKONOMIKOEN KUDEAKETAN

Bestetik, hurbileko merkataritza-, ostalaritza- eta zerbitzu-jarduerak bikaintasun maila lortu dute kudeaketari dagokionez, eta Tolosaldeko panorama ekonomikoa osatzen lagundu dute. Horiekin batera, nekazaritza-sektoreak ere, indarberriturik, erantzun eraginkorra ematen die “km-0” kontsumo-eskaerari eta eskualdean eta Euskadi osoan zabaldutako elikadura-burujabetzaren kulturari.

1.2 NATURAN OINARRITUTAKO ESKUALDEA, HIRI ETA LANDA-EREMUAREN ARTEKO OREKAN

NATURA ESKUALDEKO KULTURA- ETA BIZIKIDETZA EREDUAREN MUINEAN DAGO

Tolosaldeak ekologia da. Bertako jendeak Naturarekin duen konpromisoaren adierazgarri da eskualdea. Herritarrek dagokien ekosistema naturalean parte hartzen dute eta balio handiagoa ematen diote. Era berean, ekosistema horretan garatzen dituzte beren aisialdiko jarduerak, lana eta bizikidetza. Natura eskualdeko kultura-ereduaren eta garapen sozio-ekonomikoaren eta lurralde-garapenaren muina da.

Europar Batasunak zerbaitegatik goraiatzeko du Tolosaldea “*Karbonoan neutroa den eskualdea*” modura. Izan ere, kultura eta hirigintza eraldaketa-prozesu konplexu eta emankor bat izan da eskualdean, ingurumenaz gozatzeko eskubidea eta iraunkortasunarekiko konpromisoa oinarritzat harturik.

GARRAIO PUBLIKOAN ETA ELEKTRIKOAN OINARRITUTAKO MUGIKORTASUNA

Hasteko eta behin, Tolosaldea mugikortasun iraunkorraren eta elektro-mugikortasunaren sinonimoa da. Hiriguneetako desplazamendu partikular gehienak, funtsean, oinez edo bizikletaz egiten dira. Bestetik, auzo txikietatik eta baserrietatik egiten diren hiri barneko desplazamenduak orain ibilgailu elektrikoetan egiten dira, sustatze-programa aitzindari baten eraginez.

METRO ORIA (Metro Elektriko Adimentsua – Tolosaldea Goierri) proiektu entzutetsuaren lineak N-1 errepidearen korridoreko desplazamendu gehienak jasotzen dituzte. Bi eskualdeetako udalek Lurraldeko eta herrialdeko erakundeen aurrean elkarrekin burututako lobby-lanei esker egin zen proiektu hori.

Bultzada horri esker, AHTa martxan jarri ondoren libratutako trenbidearen azpiegitura erabat aporotxatu eta RENFEk operatzen zuen



Brinkola-Donostia aldiriko linea berregokitu ahal izan zen. METRO ORIAk

orain metropoli-trenbide modura jarduten du Goierriko eta Tolosaldeko inguruneetan, eta Donostialdeko hiriguneetako aldiriko trenbide gisa Donostialdeko Metroarekin eta hiriburuko zentroarekin konektatzen den punturaino. Trenbide horren diseinua egokitu egin da hiriguneetatik igarotzeko eta intermodalitatearekin bat egiteko.

METRO ORIA trenbideak Goierri-Tolosaldeko konurbazioko hirigune eta enpresa-jarduera zentro garrantzitsuenak zeharkatzen ditu, eta metroaren maiztasunarekin jarduten du (5 eta 8 minutu artean gehienez puntako orduetan) zerbitzu intentsiboa emanez. Disuasio-

aparkalekuak ere baditu linea horrek, eta autobus elektrikodun lantzaderak ere, gune eta poligono txikienetarako. Bestetik, enpresek pizgarri eskuzabalak ematen dizkiete eskualdeko industrialdeetara partekatutako ibilgailuetan joaten diren langileei; izan ere, modu horretara, langileek konpentsatu egiten dituzte ibilgailu astunak instalazioetara sartu-irtenean sortzen dituzten isurketak.

Tolosaldeak hirigintza ekologikoaren eta energia eraginkortasunaren printzipioak jaso ditu eraikuntzan, *“Naturan oinarritutako hirigintza adimentsu”* baten logika komunari jarraituz.

ESPAZIO PUBLIKOAK BERRESKURATZEA

Eskualdean mugikortasun iraunkorraren eta elektro-mugikortasunaren aldeko apustua egiteak **aurrez, hiriguneetan aparkatzeko eta ibilgailuak zirkulatzeko** erabiltzen ziren hainbat **gune berde eta aisialdirako gune garrantzitsu libratu ditu erabilera publikorako**. Era berean, ibilgailuak hiriguneetako kanpoko perimetrorara bideratu dira, baina puntu horietara erraz iritsi daiteke, garraio publikoaren loturari esker eta hiriguneko eta hiri arteko egitura lotzen duen bidegorri-sareari esker.

ENERGIA- KONTSUMO IA ZEROKO ERAIKINEN ALDEKO APUSTUA SUSTAPEN BERRIETAN

Eskualdeko eraikin publiko guztiek (ikastetxeek, kiroldegiek, osasun-etxeek, udal bulegoek, kultur-etxeek) NZEB (*Nearly Zero Energy Buildings*) ziurtagiria dute eta eguzki-plakak dituzte energiaren hornitzeko. Gainera, elkarrekin konektatuta daude denak, titulartasun publikoko banaketa-sare elektrikoaren bidez. Horrela, eraikin horien estalkiak eta fatxadak estaltzen dituzten eguzki-instalazio fotovoltaiako guztiek herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzu publiko guztien kontsumo elektriko osoa hornitzen dute: udal-bulegoa, kiroldegia, baita argiteria publikoarena edo kultura-eraikina ere. Gainera, batzuek soberakin garrantzitsuak sortzen dituzte, eta soberakin horiek sare elektrikoa elikatzen dute.

ENERGIA- ERAGINKORTASUNA, ESKURAGARRITASUNA, ERAIKINAK ETA DISTRITUAK BIRGAITZEA

Auzoek, hiriguneek eta industrialdeek etengabe jaso dituzte energia-eraginkortasun, eskuragarritasun eta birgaitze maximoko programak eskualdeko eta Euskadiko erakunde bidez, eta Europako programen laguntzari esker.

2017 baino lehenagoko eraikinen % 50ean, baita hiriguneetako zein nekazaritza-guneetako eraikin isolatuetan ere, inguratzaila eta argiztapen- eta berogailu-sistemak egokitu dituzte, eta, horri esker, bizitegiko energia-



kontsumo osoa % 50 murriztu dute une hartako balioen aldean.

Auzo eta enpresa-barruti berriak eraikin pasibo izateko eta ekosistema ahalik eta gutxien asaldatzeko irizpideekin pentsatuta daude. Gainera, plaka fotovoltaikeez gain, askok hainbat instalazio txiki dituzte iturriko eta berogailuetako ur beroa hornitzeko.

BERRIZTAGARRIETA N OINARRITUTAKO ENERGIA-EKOIZPEN EREDU DESKARBONIZATUA ETA DEZENTRALIZATUA

Energia geotermikoa edo biomasarekin elikatutako galdarak erabiltzen dituzte horretarako (tokiko egur-industria alde batera uzten duten materialarekin). Etxeetako hondakin organikoak biogasa sortzen duen instalazio batera bideratzen dira, eta egoiliar berrien etxebizitzetan banatzen dira modu zentralizatuan. 2030. urteaz geroztik, eskualdean erabiltzen diren energia berriztagarrien % 100 iturri berriztagarrien bidez sortzen da.

Tolosaldea energia-trantsizioaren alde egindako apustuaz gozatzen ari da orain; izan ere, bere egunean energia ekoizteko eredu deskarbonizatu eta deszentralizatu baten alde egin zuen apustu, berriztagarriak oinarritzat hartuta. Espazio publikoaren energia-kontsumoa

minimizatu da, batez ere argiztapen-sistema eta semaforoak sistema eraginkorragoekin ordeztzeko prozesu baten bidez. Modu horretara, energia-kontsumoa % 40 baino gehiago murriztu da, 2017ko datuekin alderatuta.

Hondakinak sortzea minimizatzearen aldeko apustua indartu da, eta hondakinak kudeatzeko eredu bat ezarri da (Tolosaldea Zero Waste). Eredu horrek materialen eta energiaren balorizazioa indartu du.

Ligorretatik Andoainera, landare-pergola jarraitu batek N-1 autobidearen % 75 estaltzen du eskualdeko ibilbidean. Landare-errezel lodi batek estalitako egitura metalikoak eratzen du pergola hori. Gainerako % 25a lurperatuta edo erdi-lurperatuta igarotzen da ibilbidean zehar eraikitako hiriguneetatik (horietan, espazio handiak libratu dira herritarrek erabil ditzaten). Aldi berean, animalien eta biodibertsitatearen desplazamenduak errazteko beste hamar korridore natural daude.

ERREPIDE-SAREA NATURAN INTEGRATZEA. N-1 AUTOBIDEA NATURALIZATZEA

Garai batean, lurraldea josten zuen ibilgu latz eta hautsia zen N-1 errepidea. Gaur egun, berriz, bide intermodala da, hor bateratu baitira baterako eta besterako trafikoa eta eskualde barneko beste hainbat erabilera (METRO ORIaren ibilbidearen zati bat barne, lurralde-egituraketaren eredu bat osatuz).



Ingurune naturalarekin mimetizatzearaz eta hiri-erabilerekin bateragarria izateaz gain, landare-estalki horrek kutsadura ere murrizten du. Mantu berdeak iragazki garbitzaile gisa jarduten duten hainbat espezie jasotzen ditu eta iragazki horrek CO₂-aren eta beste gas kutsagarrien zati handi bat xurgatzen du eta zaratatik partzialki babesten du.

Iragazki begetalak ibilgailu kutsagarrien zirkulazioak sortutako gas toxikoak xurgatzen ditu, eta ibilgailu horien eragina 2017ko mailaren % 80an murriztu dezake, baita ingurumen-zarata nabarmen gutxitu ere.

Proiektu adierazgarri horri esker eskualdeko hirigintzaren eta industriaren jarduerak Naturarekin bateratu ahal izan dira, eta UNESCOk saritu egin du *“Hirigintza- eta Industria-ingurune eko-arduratsu”* modura. Orain arte Eskandinaviako Malmö eta Alemaniako Friburgo hiriek baino ez zuten lortu halako ohore eta saria. Aintzatespen hori faktore bat gehiago da eskualdea enpresa- eta teknologia-erakargune izateko.

Landa-eremuak bat egin du eskualdearen profesionalizazio- eta modernizazio-dinamikarekin. *“1.000 baserri bateratu, 1.000 enpresa iraunkor”* ekimenaren barruan, eskualdeko ustiatzaile gehienak nekazaritza-kooperatiba talde txiki batean biltzea lortu da. Kooperatibek irabazi asmorik gabeko elkartearen forma dute, gaitasun teknikoak eta produktua merkaturatzeko gaitasunak dituzte, eta bazkide guztiekin elkarbanatzen dituzte. Era berean, eskualdeko baserrietan barreiatutako nekazaritza-ustiategiez gain, elkarte horietako parte dira zentro hauek ere: *Fraisoro Eskola* lanbide heziketako ikastetxea, nekazaritza eta abeltzaintzako, basoko eta ingurune naturala kudeatzeko sektorean espezializatua, Azti-Tecnalia ikerketa-zentroa eta Euskal Herriko Unibertsitatea. Denen artean, Diputazioaren eta eskualdeko Udalen laguntzarekin batera, eskualdeko nekazaritza-produktua merkaturatzeko kanalak bateratzea lortu dute. Halaber, ustiategi guztien ekoizpena eta merkatuarekiko harremanak koordinatzen dituzte, eta negoziatzeko ahalmen handiagoa eskuratzen dute. Bazkidegutako baserri guztiek etengabeko prestakuntza espezializaturako lehentasunezko sarbidea dute, bai nekazaritza-

LANDA-INGURUNE SENDOTUA ETA PROFESIONALIZATUA

eta abeltzaintza-tekniketan zein enpresa-kudeaketan ere.

2020. urteaz geroztik ustiategiek **nekazaritzako elikagaiak esperimentatzeko laborategi bat** dute, eta horri esker nekazaritzako eta abeltzaintzako produktu eta azpiproduktu berriak lortu dituzte, kalitatea, balio erantsia eta errentagarritasuna irizpidetzat hartuta. Tolosaldeko baserriak eta nekazaritza-ustategien sareak, lehengaiak sortzetik tokiko merkatuan gero eta balio handiagoa duten produktuak sortzera igaro dira. Produktu horiek, gainera, gero eta eskari handiagoa dute hurbileko merkatuetan ez ezik banatzaile handien artean eta Lurraldeko ostalaritza-sektore indartsuan ere. Tolosaldea balio natural handiko nekazaritza-sistemei laguntza emateko Europako programan sartu da, eta, horri esker, hainbat mikro-inbertsio egin ahal izan dira nekazaritza-ustategietan, produkzioa optimizatzeko, produkzioak naturaren ekosisteman duen inpaktua minimizatzeko, energia-kontsumoa murrizteko, eta baserri bakoitzean energia berriztagarria sortzen laguntzeko.

Era berean, landa-eremuak eta kooperatibak berak ere landa-ingurunearekin lotutako zerbitzu berriak ezartzeko potentziala ustiatzeko gai dira, hala nola turismo iraunkorra, gastronomia, baliabide naturalen kudeaketa edo zerbitzu ekosistemikoen ustiapena.

Nekazaritza-sektoreko enplegua handitu egin da eta eskualdeko udalerrri txikien biztanleria finkatzea lortu da. Era berean, landa-eremuetako paisaia feminizatu egin da eta emakumeek zuzendutako ustiategiak gizonezkoek zuzendutakoak baino gehiago dira lehen aldiz (525, 497ren aldean, 2025eko datuak).

1.3 TOLOSALDEA, "KO" ESKUALDEA: KO-LABORATIBOA, KO-EKINTZAILEA, (E)KO-ARDURATSUA ETA KO-NEKTATUA

TOLOSALDEA,
BERDINEN ARTEKO
GIZARTE-
KOOPERAZIOKO
SISTEMA BAT

Tolosaldea, eskualde gisa, berdinaren arteko gizarte-lankidetzarako sistema bat da izatez, eta jakintzaren, arrazoiaren, Naturaren eta giza eskubideen gainean eraikitzen da. Tolosaldea komunitate kulturaduna, irekia eta tolerantea da gaur egun, eta herritar asebateak bizi dira bertan. Herritar horiek ongizatea, ingurumen osasungarria eta lan egonkorra, gogobetegarria eta kalitatezkoa izateko eskubidea baliatzen dute. Tolosaldearen oinarria pertsonak dira. Komunitate inklusibo eta abegitsua da eskualdea. Izan ere, bertako jendearen premiekiko elkartasuna eta konpromisoa adierazten du, baina baita bere muga geografikoetatik haragoko herrien eta errealitate sozialen premiekiko elkartasuna eta konpromisoa ere.



Eskualdeko
alkateek
“Eskualde
hezitzailea”
aldarrikatu
zuten
Tolosaldean
2018an. Orduan,
pertsona guztiek

hezkuntza jasotzeko duten funtsezko eskubidea zabaltzeko tresnak sortzea proposatu zuten hainbat eragilek, helburu nagusi batekin: merkataritza-irizpide soilen eraginez **hezkuntza eskuratzeko orduan sor zitezkeen desorekak** zuzentzen laguntzea. Eskualdeko biztanle guztiek, Eskualde Gutunean jasotakoaren arabera, eskualdeak eskaintzen duen prestakuntza, entretenimendu eta garapen pertsonaleko baliabideez eta aukerez gozatzeko eskubidea dute, askatasun- eta berdintasun-baldintzetan. 2019an *Hiri Hezitzaileen Nazioarteko*

ESKUALDE KO- LABORATIBOA: ASOZIAZIONISMOA ETA KOOPERATIBISMOA

Elkartean integratu zen udalerrien lehen mankomunitatea bihurtu zen Tolosaldea.

“Eskualde Hezitzailea” martxan jartzeak aukera eman du **Tolosaldeko imajinario etikoan gaur egun erabat zabalduta dauden balioak unibertsalizatzeko eta horien inguruan, sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekintza ugari gauzatzeko**. Hauek dira balio horietako batzuk: naturarekiko eta ingurunearekiko eko-erantzukizuna, ko-laborazioa eta ko-operazioa. Horiek guztiak eskualdea, genero-berdintasuna eta komunitateko kide guztiekiko ko-npromiso kolektiboa eraikitzeke tresnak dira.

Hain zuzen ere, Tolosaldeak **belaunaldien arteko elkarrizketa** sustatzen du, eta ez soilik bizikidetzak baketsurako formula izan daitekeelako, baita adin ezberdinak dituzten taldeen artean proiektu komunak eta partekatutako bilatzeko ere. Estrategia hori gauzatzeko, hezkuntza-politika zabal bat ezarri behar da, izaera zeharkakoa eta berritzailea duena, hezkuntza formaleko, ez formaleko eta informaleko modalitate guztiak barne hartuz, baita eskualdean sortzen diren kultura-adierazpen, informazio-iturri eta errealitatea ezagutzeko bide ugariak ere.

Tolosaldeak *ko-eraiki* egiten du eta bere etorkizuna kooperazioan sortzen du orain. Eredu kooperatiboa indarrez sartu da Tolosaldean enpresa eraikitzeke moduari dagokionez. Urte askoan **enpresa-kultura kolaboratiboago** baten



alde dibulgazio-lanean eta heziketan aritu ondoren, eta erakundeek ere bultzada eman ondoren,

Tolosaldeak enpresa kooperatibo eta lan-sozietate

gehien sortzen dituen eskualdea da gaur egun Euskadin, Debagoienarekin batera. Tolosaldeko eta Goierriko lanbide-heziketako eskolek goi-mailako gradu multi-lokalizatu bat sortu dute Mondragon Unibertsitatearekin lankidetzan. Goi-mailako gradu horrek eskualdeko 300 gestoreri baino gehiagori kudeaketa kooperatiboko konpetentziak kualifikatu dizkie azken bost urteetan sektore ekonomiko guztietan: industria, zerbitzuak, ostalaritza, merkataritza eta eskualdeko nekazaritza eta abeltzaintza sektorea.

ERANTZUKIZUN KOLEKTIBOKO ETA AUZOLANEAN OHITUTAKO ESKUALDEA

Asoziazionismoa % 25ean handitu da eskualdean, kooperatiba berriak sortzeari esker, eta bereziki, **sozietate mugatu eta anonimo asko** **sozietate kooperatibo eta lan-sozietate bilakatzeari esker**. Gaur egun (2025eko datuak) 710 eragile sozial baino gehiago daude elkartean, fundazioen eta kooperatiben artean (535 2016an). Nabarmentzekoa da enpresa kooperatiboen goranzko bilakaera (berriak edo berrantolatuak). 2016an 83 enpresa kooperatibo ziren eta 2025ean 195. Horiek hartzen dute eskualdeko enplegu osoaren % 25 (% 11 2016an). Baldintza absolutuetan, Tolosaldea-Goierri Gipuzkoari langile kooperatibista gehien ematen dion (12.505 2025ean) eskualde hiritar eta industrialia da; Debagoienak (12.100) eta Donostialdeak (11.500) baino gehiago.

Kultura kolaboratibo berria kalean ere nabarmentzen da. *Auzolana* erabat berreskuratu da eskualdeko kultura-ondarean. Izan ere, erakunde publikoek era guztietako elkarte, enpresa eta entitate askoren bidez hezkuntza- eta sentsibilizazio-kanpaina garrantzitsuak egin dituzte, eta azken horiek mezua gizarteratzeko ardura hartu dute. Komunitate guztiak parte hartu du modu batera edo bestera auzolanaren sustapen horretan. Landa-ingurunean, udalen eta Diputazioaren laguntzarekin batera, brigada boluntarioak finkatu eta profesionalizatu dira, eskualdeko basoko eta naturako bideak etengabe zaintzeko eta ibaiak garbitzeko. Hiri-ingurunean

(tradizioz lankidetza-kultura horretatik aldenduagoa), emaitzak harrigarriak izan dira.

Komunitatearen kultura kolaboratibo berriaren adibide paradigmatico pare bat aipatzeagatik,

*“Arbolak
babesean
hartu”*



kanpaina egin da, 28 udalerrik elkarrekin lan eginez eskualdeko herri guztiak

bernaturalizatzeko. Kanpaina horri esker, eskualdeko udalerrietako kaleetan eta enpresa-eremuetan **10.000 zuhaitz baino gehiago landatu dira** azkeneko bost urteetan, eta ekimen horren bidez **paisaia hiritarra eta industrial birdefinitu egin da komunitatearen konplizitatearekin batera**. Gainera, udal araudiak txorkoen azalera minimoa zabaldu du (4 metro karratu zuhaitz bakoitzeko). Horri guztiari esker, Tolosaldeak 40.000 metro karratuko (lau futbol-zelai) azalera berde berri bat eratu ahal izan du parke linealen modura, eta komunitatea arduratzen da horien mantentze-lanaz.

Ingurune hiritarragoan, helduek, haurrek eta pertsona nagusiek osatutako talde mistoek garai batean ibilgailuak aparkatzeko izaten ziren kaleetako eta gunee zaharretako zuhaitzen txorkoak zaintzeko ardura partekatzen dute, egun gunee horietan zuhaitzak eta landareak baitaude, lorategi txikiz jositako sare infinitu bat osatuz. Aldi berean, eskualde zabalean multilokalizatutako industrialdeetan, enpresetako langileak arduratzen dira horien mantentze-lanez.

ESKUALDE EKO- ARDURATSUA ETA INGURUMEN- BALIOETAN HEZIA

Bestetik, *“Guztion besoetan”* kanpainak ibilbide seguruak ezarri ditu, eta horri esker, 6 urte baino gehiagoko haur guztiak bakarrik joaten dira oinez eskolara, merkatariek eta ostalariek konpromisoa hartu baitute gure txikiak kontrolatzeko eta haien segurtasuna zaintzeko beren establezimenduetatik pasatzen direnean. Hala, gizalegea partekatzen eta ko-erantzukizun kolektiboa gauzatzen dute eskualdeko adingabekoen hezkuntzarekin.

Herritarrek erabat garatu dute ingurumenarekiko duten kezka eta Naturarekiko



duten konpromisoa, **ingurumenaren gaineko hezkuntzaren bidez eta ekosistema naturalarekin ko-erantzukizuna izanez.** Herritarren

konpromiso hori hainbat modutan islatzen da: udalerriek bultzatutako hirigintza orekatu eta eko-iraunkorrean, enpresek ekonomia zirkularrarekin eta herritarrek kontsumo iraunkorrarekin duten inplikazioan, sortutako hondakinen % 100eko birziklapenean eta energia berri>tagarrietan oinarritutako energia-kontsumoaren minimizazioan.

Tolosaldeak ekintzailea izateko eta jarduera ekonomikoa sortzeko duen ohitura berritu du. Eskualdean egiazko ekimena abiatu da ekintzailtza gizarte-eskubide gisa eta komunitatea eraikitze ahalegin gisa uler dadin.

Tolosaldeko ekintzaileen jardun hori publikoki aintzat hartzeko eta horren inguruan sentsibilizatzeko kanpaina garrantzitsuak egin dira, jarduera ekonomikoa sortu da eta

EKINTZAILEEN ESKUALDEA, PERTSONA ETA TALDE EKINTZAILEEI PRESTIGIOA EMATEN DIENA

eskualdean enplegua eta aberastasuna sortzen duten enpresa-proiektuak burutu dira, eta ondorioz, egun jarduera ekintzaile horiek prestigiotsuak dira gizartean.

Ekintzailetza kolektiboaren alde egin da bereziki, eta ikusgaitasuna eman zaie produktuaren

berrikuntzan, eko-diseinuan eta gizarte-ekonomian oinarritutako eredu



arrakastatsuei.

Ekintzaileen jarduerari loturik zegoen porrota desestigmatizatzeko eta enpresa-arriskua despenalizatzeko saiakera egin da.

Ekintzailearen irudia feminizatu eta emakumearen ekintzaile-jarduera zabaldu da industria-eremuetan eta nekazaritza-kooperatibetan, orain dela gutxira arte emakumeentzat debekatuta izan diren eremuetan.

TOLOSALDEA
ESKUALDE
DIGITALA DA, ETA
BIZI DEN
MUNDUAREKIN
SARE BIDEZ
KONEKTATZEN DA

Tolosaldea eskualde digitala da eta bizi den munduarekin sare bidez konektatuta dago. Eskualdeak informazioaren teknologiak aprobetxatzen ditu, lehenik eta behin konpromisoa duten herritarren parte-hartze aktiboaren alde egiteko. Baserri eta auzo isolatuenean gaitasun handiko konexioa dute Internetekin, eta eskualdeko pertsona guztiek zuzenean jardun dezakete beren udalekin modu telematikoan webguneen eta aplikazioen bidez, eragiten dieten gaien gainean informazio gardena eta eskuragarria baitute.

Gainera, 2018an eskualdeko 28 udalerriek elkarrekin aldarrikatu zuten Interneterako sarbide-eskubidea Nazio batuek adierazten duten modura, alegia, *“babes, askatasun eta adierazpen maximoko giza eskubide”* baten gisa, eta horri esker, pertsona guztiei eskuragarritasuna

bermatu zaie beren bizitokia edozein izanik ere. Hala, 2020an Tolosaldeko nekazaritzako ustiategi guztiek Internet sarbidea izatea lortu zen, 100 megabyte baino gehiagoko abiadurarekin. Horretarako, nodo WIFIen sare mankomunatu bat eratzea bultzatu zen irrati-loturen bidez. Modu boluntarioan eta elkarlanean, eskualdeko herritarrek eta enpresek elkarren artean konektatutako nodoen geruza trinko bat eratu zuten pixkanaka, “Tolosaldea WiFree” sareari forma emanez. Sare horri esker, operadore askok 1.000 megara arteko nabigazioa eskaini dezakete prezio eskuragarrien truke.

“Tolosaldea WiFree” sarea irekia da, (edozein konekta daiteke), askea da (inork bereganatu ezin duen ondare publikoa da) eta neutrala da (bertan zirkulatzen duen edukiari dagokionez). Gaur egun 500 nodo baino gehiago ditu Tolosaldean, eta beste 250 Goierrin. Hala, Lurraldeko banda zabaleko azpiegitura nagusia da. Eskualdeko baserri, auzo eta herritar guztiek erabil dezakete sarea, eta hainbat lagunek osatutako komunitate txiki bat sortu da. Honako hauek dira komunitate horretako kide: sarea nork bere kabuz edo taldean erabiltzen duten boluntarioak, sarea zabaltzeko eta mantentzeko jarduera profesionala gauzatzen duten eta sarearen gaineko merkataritza-zerbitzuak eskaintzen dituzten autonomoak eta enpresak, eta telekomunikazio-zerbitzuak kontratatzen dituzten erabiltzaileak.

TOLSALDEA EUSKALDUNA DA

Era berean, Tolosaldea komunitate erabat euskalduna da. Eskualdeak euskararekiko konpromisoa biderkatu du bizitza ekonomikoaren eta sozialaren eremu guztietan: udal administrazioan, justizian, osasungintzan, hezkuntzan, enpresan eta kirolean.

Izan ere, Tolosaldea euskararen normalizazio-eta kualifikazio-prozesuaren benetako Living Lab batean bilakatu da Euskal Herrian. Eskualdeko udalek eta eskualdean jarduten duten erakundeek eta enpresek lankidetzan

EUS KAR ALD EA tolosaldea

jarduten dute
modu aktiboan
Gobernuko eta
Foru Aldundiko
arduradunekin,
euskara
komunitateko
bizitzan
komunikazio-
hizkuntza gisa
erabiltzeko
hainbat
proiektu eta
ekimen martxan

jartze aldera.

KONURBAZIO GISA ERATUTAKO ESKUALDEA

Inplosio kolaboratiboak eskualdearen mugak gainditu ditu. Tolosaldeak bere muga propioak alde batera utzi, eta inguru geografiko hurbileneko eragileekin lankidetzan garatu ditu eskualdeko enpresa-, ingurumen-, kultura- edo turismo-garapeneko prozesuak. Hala, praktikan, benetako konurbazio polizentriko bat gauzatu dute eskualde auzoek, eta Goierritik Andoainera arte partekatzen diren lidergo eta azpiegiturak sortu dituzte.

100.000 biztanleko konurbazio handi hori hainbat elkartek eta eskualde arteko erakundek egituratu dute gizarte mailan, batzuk botere publikoen laguntzarekin eta beste batzuk enpresen eta erakunde pribatuen laguntzarekin. Konurbazio berriak anbizioa, konpromisoak eta baloreak partekatzen ditu.



Ekintza
bateratuari
esker,
eskualdean
METRO ORIA
(Metro Elektriko
Adimentsua –
Tolosaldea

Goierri) ezarri ahal izan da; eskualdeko ospitaleen azpiegitura berregin ahal izan da; hiri-

antolamendu partekatu baterako partzuergo komun bat eratu ahal izan da; kultura-politika bateratu bat ezarri ahal izan da homologatutako musika eta arte eszenikoen eskualde arteko eskola batekin, baita maila bikaineko kultura zabaltzeko jarduera-agenda bat ere. Era berean, industria-berrikuntzaren interesgune gisa eratu da elektro-mugikortasunaren alorrean, enpresa-, teknologia- eta unibertsitate-jarduerei esker; Eta Oriako ibai-hiri handia eraiki da, aisialdirako, gizarterako eta kiroleterako instalazioekin. Oria ibaiaren inguruko hiri horrek, osotasunean, 100.000 metro karratu baino gehiago hartzen ditu.

PUNTO DE LLEGADA VIAJE A LA UTOPIA. TOLOSALDEA ANHELADA

PUNTO DE PARTIDA ACTIVOS Y OPORTUNIDADES



Hori utopiarako bidaia izan da.
Utopia eraikitzeko unea iritsi da, ilusioz
beterik...

2 ABIAPUNTUA.

2017ko bigarren seihilekoan hausnarketa estrategikoko prozesu bat gauzatu zen eskualdean. Posizionamenduko azterketa teknikoak, pertzepzio-galdeketa eta herritarrek parte hartzeko dinamikak konbinatu ziren prozesu horretan. Horri guztiari esker, baldintza erlatiboetan (edo itxaropen-baldintzetan) ongi funtzionatzen ez duten hainbat elementu nabarmendu ahal izan dira; baina gainera, urteekin martxan jartzen hasi eta ondorio oso interesgarriak ematen ari den zerbait ere azaleratu da, enpresa, lanbide-heziketa, lurralde-kudeaketa, landa-garapen edo gizarteratze mailan.

1. ELKARLANA

TOLOSALDEA GARATZEN — NAIDER

— LAN-MAHAIK

2. ESKUALDEAREN POSIZIONAMENDU ETA BALIO KATEEN ANALISIA:

- LEHIAKORTASUNA
- BERRIKUNTZA
- PRESTAKUNTZA
- EKINTZAILETZA
- IRAUNKORTASUNA
- GIZARTEA

3. GIPUZKOA, EAE ETA EUROPAKO 20 PRAKTIKEN ANALISIA

4. ESKUALDEKO AGENTEekin EGINDAKO PARTEHARTZE PROZESUA:

- 150 PERTSONA
- 3 PERTZEPZIO INKESTA:
 - LIDERRAK
 - ENPRESAK + GOI-MAILAKO ZENTROAK
 - EKINTZAILEAK
- 2 ALDERATZE JARDUNALDI
- FACEBOOK — LINKEDIN — TWITTER

INDUSTRIA EKONOMIAREN MOTOR GISA

Joan den mendeko azkeneko hamarkadak hartzen baditugu, ikusiko dugu eskualdeko sektore paradigmaticoen (esaterako paperarena) krisialdiak ez zuela ekarri, beste ingurune batzuetan gertatu zen moduan, zerbitzuen eskualde bat sortzea, XIX. mende amaieratik indarrean izan zen industria-eredua alde batera utzita. Aitzitik, eskualdeko enpresa handiek itxi ondoren, Tolosaldeak enpresa-ehun osagarriak sektore eta balore-kate berriak aurkitu zituen pixkanaka-pixkanaka, eta horiei balioa eman zien.

Eskualdea industria- eta ekintzaile-izaerak bereizten zuen, eta horri esker, industria metal-mekanikoko enpresa-ehunaren zatirik handienak berehala aukerak hauteman zituen inguruko enpresetan. Enpresa horiek erreferentzia-puntu garrantzitsuak izan ziren, gero nazioarteko beste hainbat enpresetara jauzia egiteko. Aldi berean, beste hainbat sektoretako enpresek eskualdeko egungo industria-ehuna osatu zuten, eta gaur egungo motor ekonomiko nagusia izaten jarraitzen dute.

Industriak **eskualdeko beste hainbat jardueratan dinamika erabat positiboak sortzen laguntzen du**, argi eta garbi. Izan ere, merkataritza eta ostalaritza moduko sektoreak berrelikatzen ditu. Izan ere, Tolosaldeko gizarteak erosahalmen ertain-atua du, eta horren onura lortzen dute merkataritzak eta nekazaritzak, gizarte horri kalitatezko proposamenekin erantzun behar baitiote, Donostia inguruko merkataritza-eskaintza lehiakorren aurrean. Jarduera horiei kalitatezko eta masifikatu gabeko turismoak ere mesede egiten die, eskualdeko ingurune naturalaz, gastronomiaz eta antolatzen diren aisialdirako hainbat jardueraz gozatzera etortzen baitira bisitariak Tolosaldera.

ONDO KOKATUTAKO
ESKUALDEA,
BIZITZA-MAILA
ALTUAREKIN ETA
GIZARTE-
HORNIDURA
UGARIREKIN

Tolosalde bizi-maila altuko eskualdea da.

Herrialdeko enpresa-korridorarik

dinamikoenean (N1ean) kokatzeak aukera ezin hobe ematen dio. Goierriko eta Donostialdeko jakintza-guneetatik, I+G, logistika eta industria-guneetatik hurbil dago, eta horrek enplegua ematen die eskualdean bizi direnei, baita goi-mailako ikasketak egiteko aukera ere gazteei. Eta, oroz gain, ardatz horretan egoteak aukera ematen die Tolosaldeko enpresei inguruneke beste enpresekin eta entitateekin lankidetzak eratzeke eta lehiakortasuna sakontzeko.

Osasun, gizarte-kultura, hezkuntza eta garraio arloetan **ekipamenduen hornidura** ona da. Segurtasun, ongizate, aberastasunaren banaketa eta ingurumenaren kalitatearen **adierazleak** Gipuzkoako onenetakoak dira. Gainera, paradoxikoki, eskualdeko biztanle-gune nagusiek industria handien porrotari etekina ateratzen jakin zuten, hirigintzaren ikuspuntutik.

Hiriguneak modu askoz ere harmonikoagoan eta atseginagoan berrantolatzen joan dira, aurreko garapen-ereduaren ondorioz sortutako neurritz gaineko gehiegikeri haiek herritarrarekin adiskidetuz. Hiriko praktikak eta kudeaketa-joerak sartzen joan dira (oinezkoentzako bideak, hondakinen kudeaketa, uraren kudeaketa, ekipamendu sozio-kulturalak, esku-hartze sozialeko zerbitzuak, hezkuntza-praktikak eta parte-hartze sozialeko praktikak), eta horiei esker, eskualdeko udalerriek beren lekua hartu dute.

Tolosaldeak modu oso eraginkorrean mantentzen eta sustatzen du Gipuzkoako eta Euskal Herriko beste hainbat eremutan ia desagertu dena: **hiriko inguruneen** (bereziki Tolosa-Ibarran, baina baita Villabona-Zizurkilen ere) **eta lurraldean sakabanatutako herri, auzo eta baserri txikietako inguruneen arteko interakzio oso emankorra**. Interakzio horri esker, herri txikiek giza eskalan eraikitako inguruneen berezko mugimenduaz eta hiriko bizitzaz gozatzen dute. Eskualdeko merkataritza,

ostalaritza, eta orokorrean, bizitza soziala (merkataritzak, azokek, jaialdiek, nekazaritza-industriak, eta abarrek sortutako erakargarritasunak) indartu egiten dira harreman-zirkulu honetan. Elkarreragin horren muinean industria-oinarri sendo bat dago, eta horrek bizitza-maila altua, enplegu egonkorra eta kalitate bikainekoa sortzen eta ahalbidetzen ditu, lan- eta ordainketa-baldintzei dagokienez.

Ez da ausarkeria esatea “business as usual” egoera batean (hau da, eskualde mailan inolako estrategiarik eratzen ez den garapen-eredu batean), Tolosaldeak ongizate- eta bizikidetza-parametro batzuez gozatzen jarraituko zukeela maila makro batean, Gipuzkoari egokitu dakiokeen mailan; izan ere, Gipuzkoak gure inguruko herrialde aurreratuen pareko estandarrez gozatzen du dagoeneko.

EGUNGO SISTEMA SOZIO-EKONOMIKOA POBRETZEKO ARRISKU BIZIA

Baina eskualdeko biztanleen bizitza-maila mantentze horrek beste maila askotan pobretze-prozesua sortzeko nolabaiteko arriskua du. Adibidez, Tolosaldean garatutako enplegu- eta jarduera-motari dagokionez. Bai, egia da, eskualde mailan inolako ekintza pro-aktiborik gabe edo norabide zehatz batean joateko asmo sendorik gabe ere, eskualdeko industria-enpresa sentsibilizatuenean (edo gaitasun handiena dutenek) azkeneko joera teknologikoak edo kudeaketa-eredu berriak barne hartuko dituzte.

Horretarako, Gobernuak eta Foru Aldundiak enpresa-lehiakortasuna bultzatzeko politikak erabiliko dituzte; izan ere, alde horretatik, politika nahiko hurbilekoak dira hala nahi duten enpresa orok beren laguntza-programak banakako moduan erabili ditzan ahalbidetzeko. Hala ere, beste enpresa batzuk, txikiagoak direnak edo gaitasun gutxiago dutenak, agian desagertu egingo dira, eta litekeena da eskualdeko errealitate ekonomikoan betetzen duten tokia hutsik geratzea, edo kasurik onenean, zerbitzuen sektorearekin lotutako beste jarduera batzuek betetzea ziurrenez toki hori (eta ez halabeharrez industriarekin lotutako zerbitzuen sektoreko jarduerak). Beste garai batean industrialak ziren beste ingurune askotan gertatutako prozesua da hori, bere garaian beren lehiakortasun-eredua bir-industrializatzeko eta eraldatzeko prozesu bati aurre egiten jakin ez zutelako.

Urrutira joan behar izanik gabe, Euskadin badira horrelako hainbat eremu. 1980ko hamarkadako krisialdi sistemikoaren ondoren eskualde eta eremu horiek ez dute inoiz beren industria-izaera berreskuratu; eta eskualdeari kalitatea eta enpleguaren egonkortasuna ematen zion enpresa-ehuna etengabe desagertzen joan zen, baita ekintzailatza-dinamismo argi bat ere maila guztietan. Eskualde horietan, komunitateko bizitzaren jarduera nagusiak (lana, kultura, hezkuntza, aisialdia) gaur egun hurbileneko ingurune hiritar eta industrialetan egiten dira.

Merkatuak eta estrategia partekatuak egituratzeko gaitasunik ezak horretara eraman ditu, eta hala, eremu horietako herritarrak pixkanaka barneratzen joan dira beren eskualdea bizitegi huts bilakatu dela.

Hori ez zen Tolosaldearen kasua izan 1970eko, 1980ko eta 1990eko hamarkadetako krisialdi sistemikoaren ondoren. Eskualdeak ekintzailetzarako duen ohituragatik edo beste sektore batzuei balioa emateko izan zuen gaitasunagatik edo gauza biengatik aldi berean, enpresa txiki eta ertain osagarrien ehunak buelta ematen, egokitzen eta berriro posizionatzen jakin izan zuen une hartan, ingurune hurbileneko enpresa handiei balioa eman ahal izateko. Udalerriek industria-lurzoru nahikoa jarri zuten eta lanbide-heziketako zentroek curriculumak egokitu zituzten.

JOERA GLOBAL BERRIAK: 4.0 INDUSTRIA ETA GAUR EGUNGO EKONOMIA ZIRKULARRA

Baina hurrengo urteetan lehiakortasun-ereduaren zein eredu sozialaren paradigma-aldaketa berriei egin beharko diegu aurre (dagoeneko egiten ari gara zenbait kasutan). Bereziki, 4.0 Industriaren iraultza hortxe dago jada. Eskualdeko industria-enpresek badakite, eta asko esku hartzen eta prozesu horri aurre egiten hasi dira jada, eskualdetik hurbil dauden inguruneetako tresnez eta euskarri teknologikoez baliaturik sarritan (Tolosaldeko lanbide-heziketako zentroek eskainitako zerbitzu teknologikoen salbuespen nabarmenarekin, zentro horiek beren lekua egin nahi baitute eta enpresei gaitasunak eta irtenbideak eskaini). Beste batzuek oraindik ez diote ekin eraldaketa-prozesu horri.

Eskualdeak berak ere ez du berez oraindik esku hartu, eta ez ditu martxan jarri tokiko industriaren prozesu horri bultzada emateko eta laguntzeko ekimen nahikorik. Eskualdea herrialde osoko korridore hiritar eta industrial dinamikoenean txertaturik dago. Gauzak gertatzen ari dira dagoeneko, eta Tolosaldeak, ingurune lehiakorra denez eta horrela izaten jarraitu nahi duenez, urrats bat eman nahi du Plan Estrategiko honen bidez.

Logikoa den moduan, eraldaketa-prozesu hori ez da eskualdera mugatzen; aitzitik, Euskadiko industria osora eta Europako kontinente osora zabaltzen da. Zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren Euskadiko Politikaren testuinguru horretan (*Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación Euskadi 2020*, PCTI 2020), Euskadiko 4.0 Fabrikazio Aurreratuko Estrategia aurrera egiten ari da, ekimen estrategikoak definitzeko eta bultzatzeko, enpresek aurrerapen teknologikoak ahalik eta gehien aprobetxa ditzaten. Ekimen horiekin oso loturik, *Gipuzkoa 4.0 Fabrikazio Aurreratuko Sarea* jarri da martxan dagoeneko. Sare horretan, zentro teknologikoek, unibertsitateek eta enpresa-liderrek Gipuzkoako enpresei 4.0 industriaren potentziala eta ezarpen praktikoak erakutsiko dizkiete.

Bigarrenik, ingurumen-iraultza eta iraunkortasunerako eredu zirkularra, hurrengo urteei begirako iraultza handia, beren unea noiz iritsiko zain daude. Alde horretatik, Tolosaldea oso sentsibilizatuta dago eta ekimenak eta bultzada jasotzeko gosez Naturarekiko konpromisoaren balioa handitzeko, eskualdeko identitate-ikur gisa. Hala adierazten dute hausnarketa estrategikoko prozesuan eskualdean gauzatutako parte-hartze ekimenek. Komunitateak gizartearen, ekonomiaren, hezkuntzaren, kulturaren eta ingurumenaren ordena guztietan aurrera egin nahi izateaz gain, zenbait erronkaren aitzindari izan nahi du berariaz, erronka horiekin erabat bat egiten baitu, eta badaki eskualderako aukera argiak izan daitezkeela etorkizunean. Ingurumenaren gaia eta Naturaren balorizazioa komunitatearen geneetan dago. Izan ere, komunitateak bide bat exijitzen du ekonomia- eta enpresa-eremuan ere erabateko adierazpidea izateko.

ERRONKA: INDUSTRIA
LEHIAKORRA
SORTZEA,
INGURUMEN- ETA
GIZARTE-
KONPROMISO
ARGIAREKIN

150 pertsona baino gehiagok (enpresetako arduradunek, ekintzaileek, gizarte- eta ingurumen-entitateek, hainbat udalerritako politika-arduradunek, eskualdeko garapen-agentzietako teknikariek eta eskualdean eragin soziala eta intelektuala duten liderrek) Tolosaldea birposizionatzeko eta alor horietan erabakitasunez jarduteko nahia azaldu dute.

Helburua hauxe da: biztanleen garapen pertsonaleko aukerak biderkatzea eta eskualdea lehen mailako ingurune eko-industrial gisa finkatzea. Eta erronka, berriz, honako hau: herritar guztientzako ongizate-eskubidea, ingurumen-eskubidea eta lan egonkor eta kalitatezkoa izateko eskubidea erabat iraunkorrak, bateragarriak eta eraginkorrak bihurtzea.

Eskualdeko gizarte-, enpresa- eta ingurumen-eragileek aipatutako asmo horiei erantzuna emateko lehenengo zailtasuna zera da, eskualdeko helburu politikoak eta aurrekontuaren gaitasuna bateratuko dituen erakunde komunik ez dagoela.

LURRALDE ETA
MUGIKORTASUN
EREDU KONPLEXUA
ETA
KONTRAESANKORRA
INGURUMEN
KONPROMISOAREKIN

Kontuan izanik eskualdeko orografia zer nolakoa den (hirigune eta industrialde txiki askokoa), eta Tolosaldea oso hurbil dagoela erakargarritasun handiko ardatz ekonomikoetatik (hau da, N-1-aren ardatz industrial, Miramongo Parke Teknologikoa) komertzialetatik (hau da, Tolosa, Urbil, Garbera), unibertsitarioetatik (Ibaetako campusa) eta kulturaletatik (Donostia), Tolosaldeko herritarren mugikortasun-premiak izugarri handitzen dira lurralde-eredu sakabanatu baten desabantailei aurre egin ahal izateko; hau da, Tolosaldeko biztanleek etengabe mugitu behar dute batera eta bestera, beren egoera geografiko pribilegiatuak eskaintzen dizkien aukera guztiak eta gizartearen eskari guztiak aprobetxatu ahal izateko (gizartearen eskari hori oso altua da maila guztietan).

Gainera, eskualdean bertan ingurune hurbileko pertsonen enplegua ematen dieten enpresak izateak eta Europa mailan interesgarriak diren bideen eta trenbideen komunikazio-ardatzak izateak zirkulazioa biderkatzen dute eskualdean, eta nagusi den mugikortasun-eredua elikatzen dute. Eredu hori, funtsean, ibilgailu pribatuaren erabilera masiboan (herritarrek beren ibilgailua erabiltzen dute batetik bestera joateko) eta salgaiak garraiatzeko ibilgailu astunen erabileran oinarritzen da (Tolosaldeara edo Tolosaldetik produktuak eta salgaiak garraiatzeko eta, bereziki, N-1 eta AP-15 komunikazio-errepide handiek jasaten dituzten eta eskualdea mutur batetik bestera zeharkatzen duten ibilgailuen erabileran).

Beraz, hurrengo urteetarako erronka da mugikortasun-ereduan kultura-aldaketa bat ezartzea eta irtenbideak planteatzea hainbat mailatan, mugikortasun-eredu atseginago, adimentsuago eta iraunkorrago baterako trantsizioa errazteko, mugikortasun elektrikoaren aukerak aprobetxatzeko eta gaur egun eskualdean ohikoak diren desplazamendu-ereduak aldatzeko. Aldi berean, erronka are handiagoa da; izan ere, Tolosaldearen oinarritzko

lurralde-ereduaren eta ekonomia- eta industria-ereduaren ondoriozko premiazko zirkulazioen ingurumen-talka arindu behar da.

Tolosaldeko lurralde-garapenerako eredua erabat sakabanatuta dago, eta neurri handi batean eskualdeko muina egituratzen duten industria-korridorearen eta komunikazio-ardatzen potentziaren baldintzapean dago.

Helburua da ahalik eta gehien optimizatzea gaur egungo bizitegi- eta industria-garapenaren eredua, lurzoruak eta ibai-ibilguak berreskuratzeko, energia-eraginkortasuna ahalbidetzeko eta hondakinak ahalik eta gehien birziklatzeko.

Etorkizunera baikortasunez begiratzeko moduan gara. Izan ere, hirigintza kudeatzeko soluzioen iraultza sortu da, eta horien oinarrian hauek daude: Natura bera, hiriko eta industriako hondakinak birziklatzeko eta berrerabiltzeko teknologia berriak, eta berriztagarriak energia-eredu gisa erabiltzeko eta eskala txikin sortzeko aukerak aprobetxatzea.

IKUSEZIN BIHURTUTAKO DIMENTSIOA: ZAINTZEN EKONOMIA

Harreman ekonomikoen sistema eta sistema horri eragiten dioten aldagarriak ulertzeko modua etengabe ari da eboluzionatzen. Gure ekonomiaren lehiakortasun-ereduan zerbitzuak eta produktuak ekoizteak eta merkaturatzeak sortzen duen ingurumen-kostua (zuzena eta zeharkakoa) ari da txertatzen pixkanaka; eta, era berean, gizarte-eskubideekin, genero-berdintasunarekin edo aukera-berdintasunarekin zerikusia duten gai berriak ere indarrez ari dira agertzen.

Aldarri horiek ia beti elkarrekin loturik daude, eta horien artean, TOLOSALDEA SARETZEN-ek nabarmendu nahi du pentsamendu ekonomikoko hainbat joerak **“Zaintzen Ekonomia”** izendatzen dutena.

Zaintzen Ekonomiaren helburua da produkzio eta ekonomia-harremanen ereduan jarduera multzo oso bat sartzea (batzuk diruz ordainduak, beste batzuk ez ordainduak edo modu oso prekarioan ordainduak), izan ere, gure gizarteak eta sistema ekonomikoak horiei esker jarraitzen baitute funtzionatzen eta operatzen.

Zaintzak doan edo ordainduta egiten diren jarduerak dira, eta pertsonen eguneroko ongizate afektiboa eta materiala ematen dute. Etxeetan, parkeetan, eskolan, osasun-zentroan eta supermerkatuan zaintzen da. Haurrak, mendekotasuna duten pertsonak, gaixoak edota pertsona nagusiak zaintzen dira. Zaintzaren mapa bat irudikatuko bagenu, ikusiko genuke espazio guztietan dagoela presente, eta gainera, zaintzaileak gehienetan emakumeak direla. Emakumeek, emantzipazioaren eta berdintasunaren aldeko borroka eginez, eta zaintza-lanen eguneroko esperientzia oinarri hartuz, gaia kaleratu dute eta duen garrantzia nabarmendu.

Gai hori TOLOSALDEA SARETZEN Planean sartu da, lehenik eta behin, jarduera horiek guztiek gure gizartearen funtzionamenduari

egiten dioten ekarpena aintzatesteko eta balioesteko.

Zaintzen Ekonomiak ez du indarrean dagoen ekonomia-eredua ukatzen. Aitzitik, bere dimentsio guztiak osatzen ditu, aberastasuna sortzeko mapa osoa erakusten (eta osatzen) baitu.

Eredu horren benetako garrantzia ulertzea garrantzitsua da Tolosaldea solidarioago, bidezkoago eta inklusiboago bat eraikitzen jarraitzeko.

GAUR EGUN ERAKUNDE POLITIKO KOMUN BAT FALTA DA

Tolosaldeko egitura instituzionala 28 udalerriren artean banatzen da, eta agian biztanle gehien dituzten lau herri nagusiak kenduta, besteek beren eskumen eta erantzukizun hurbilenak betetzeko adina gaitasuna dute, baina ez gehiago.

Alderdi anitzeko paisaia politiko-instituzional honek abantaila bat du: eskualdeko gizartearen eta lurraldearen errealitatetik hurbilago dagoela. Hala ere, zaildu egiten du eskualde-izaerako erabaki mankomunatuak hartzea, baita eraginkortasuna bermatzeko masa kritiko gehiago izatea eta eskala-ekonomiak aprobetxatzea eskatzen duten zerbitzuak/aukerak kudeatzea ere.

Egoera hori ez da berria, eta eskualdeak jakin izan du hainbat kudeaketa-tresna eratzen eta egitura mankomunatueta parte hartzen (eskualdeko garapen-agentzia *Tolosaldea Garatzen SA*, Plan honen sustatzailea; landa-garapenerako elkarte, *Tolomendi Elkartea*; hiri-hondakinak kudeatzeko mankomunitatea, *Tolosaldeko Mankomunitatea*). Tresna eta entitate horietako batzuk, gainera, eskualdez gaingirak dira (*Gipuzkoako Urak* ur-partzuergoa, adibidez, zeinak uraren ziklo osoa kudeatzen baitu).

TOLOSALDEA SARETZEN, EKIMEN PARTEKATUA

Bada aipamen berezia merezi duen azken lankidetzaren ekimen bat. 2014. urtearen bukaeran *Tolosaldea Saretzen* sortu zen, eskualdeko udalek osatutako inbertsio-funts bat, ekimen estrategiko publiko-pribatuak martxan jartze aldera. Funtsa udalerriek jarritako ekarpen konprometuekin elikatzen da. Jarduera Ekonomikoko Zergaren bidez udalerrietako diru-kutxan sortzen diren diru-sarreraren % 10 da ekarpen hori. 2017ko ekitaldian 120.000 eurokoa izan da ekarpen horien zenbatekoa, eta hiru proiekturen artean banatu da kopuru hori (lau izan ziren 2016an). Eskualdeko enpresek eta entitateek aurkeztu dituzte egitasmo horiek, eta deialdian aurkeztu direnen artean aukeratuak izan dira.

Tolosaldea Saretzen-en bidez erakunde-arteko finantza-tresna bat eratu da Tolosaldean, eta tresna horrek eskualdean inpaktua izango duten ekintza estrategikoak martxan jartzea ahalbidetzen du. Horretan datza ekimenaren garrantzia. Dagoeneko existitzen diren kudeaketa-tresnetan oinarritzen da tresna hori (*Tolosaldea Garatzen SA*), baita eskualdeko ordezkaritza politikoan oinarritutako zuzendaritza politiko mankomunatuan ere (*Tolosaldea Garatzen*-eko Administrazio Kontseilu berak gidatzen du zuzendaritza hori). *Tolosaldea Saretzen* ekimenak finantza-ahalmena mugatua du oraingoz, baina Tolosaldearen garapen estrategikorako tresna gisa ibilbidea oso luzea du egiteko; izan ere, Tolosaldeak eskualde gisa duen gobernantza estrategikorako lehen premia konpontzen du: alegia, finantza-gaitasuna duen eskualde-izaerako administrazio-erakunde horren hutsunea betetzen du. *Tolosaldea Saretzen*, gainera, eskalan handitu daitekeen tresna da, eta Tolosaldeak bere etorkizunaren alde egiten duen apustua bistaratzeko tresnarik onena izan daiteke.

3 TOLOSALDEA SARETZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN IKUSPEGIA

PLAN ESTRATEGIKOA ULERTZEKO BESTE MODU BAT

TOLOSALDEA SARETZEN jauzi bat da eskualdean gaur arte gauzatutako plan estrategikoen konfigurazioan. Azkeneko 2011-2016 Plan Estrategikoa zazpi ardatz estrategiko handiren, 19 helburu orokorren eta 45 jardueraren (horietatik 17 lehentasunezkoak) inguruan hezurmamitzen zen, eta plan horretan udalek, enpresek eta bestelako hainbat entitatek (garapen-agentzia, elkarte, lanbide-heziketako zentro, etab.) esku hartzen zuten. Planak ekintza bakoitzaren kostuaren estimazio bat adierazten zuen, baita gobernantza-eredu bat ere. Lankidetzaren publiko-pribatua eta alderdi batzuek eta besteek plan horrekin bat egiteko agertutako borondatean oinarritzen zen gobernantza-eredu hori.

Plana proposamen-modura sortu zen, eta ekintzak ezartzea baino gehiago, eragile publiko eta pribatuei proposatzen zien ekintza horiek beren kudeaketa-planetan sartzeko eta beren aurrekontuen zati bat ekintza horietara eramateko. Izan ere, Plana ez zen proposatutako ekintzak gauzatzeko funts bereziekin hasi; alegia, entitate bakoitzaren aurrekontu arruntaren funts gehigarriekin. Planean jasotako jardueretako asko gauzatu ahal izan dira azkenean, Tolosaldea Garatzen SA eskualde-garapeneko agentziak egindako jarraipen- eta bultzada-lanari esker. Gainera, Planak zenbait politika bideratzeko, eskualdeko aukera nabarmentzeko eta Tolosaldeko gaur egungo eta etorkizuneko zenbait gai garrantzitsuren gainean sentsibilizatzeko balio izan du. Baina programa ekonomiko-finantzario bat eta aurrekontuen konpromiso zehatz bat ez izateak Planean identifikatutako beste jarduera interesgarri asko gauzatzeko galarazi du.

PLANAK KONPROMISO POLITIKOA ETA FINANTZA ARLOKOA DU

TOLOSALDEA SARETZEN modu erabat ezberdinean ulertzen da finantzaketa eta gobernantza ikuspuntutik. Boluntarismoaren eta sentsibilizazioaren aurrean. TOLOSALDEA SARETZEN-ek profesionalizazioaren eta erantzunkidetasunaren aldeko apustua egingo du Plana martxan jartzeko. Aurrekontua estimatzeaz gain, TOLOSALDEA SARETZEN-ek hainbat finantzaketa-konpromiso jasotzen ditu.

TOLOSALDEA SARETZEN eskualdea birposizionatzeko ekimen berezi gisa planteatzen da. Ekimen horren helburua da gaur egun hainbat eragile dagoeneko garatzen ari diren jardueren osagarri izatea. Kudeaketarako, proiektuak gauzatzeko eta koordinaziorako aurrekontu propio bat izan du hasieratik, ekimenaren sustatzaileek (alegia, eskualdeko udalek) Tolosaldea Saretzen funtsaren bidez eman dutena.

Alde horretatik, eskualdeko udalek indartu egingo dituzte Funts hori elikatzeko ekarpenak. Aldi berean, eskumena duten erakundeek ere (Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Europar Batasunak) funtsak bideratuko dituzte, eta hala, ekarpen horiekin guztiekin enpresen eta inplikaturako beste hainbat eragileren funts pribatuak eta gaitasun teknikoak indartuko dira hainbat jarduera martxan jartzeko.

Plana koordinatzeko eta gauzatzeko jarduerak Tolosaldea Garatzen garapen-agentziak gidatzen ditu. Planaren muin eta idazkaritza tekniko lanak betetzen ditu agentziak.



PLAN OSAGARRI BAT



TOLOSALDEA SARETZEN ekimenaren helburuak honako hauek dira:

1. **OSATZEA:** Eskualdeko udalek, *Tolosaldea Garatzen* eskualdeko garapen-agentziak eta inguruan jarduten duten gainerako eragileek ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak barne, gauzatzen dituzten jardueri eta kudeaketa-konpromisoei elementu osagarri bat ematea.
2. **LAGUNTZEA.** *Basque Industry 4.0 2017-2020 Industrializazio Planean* zein Foru Aldundiaren *Etorkizuna Eraikiz* ekimenean identifikatzen diren eta Lurralde Smart eta zirkular batekin lotzen diren aukera estrategikoetako bat gauzatzea.
3. **BIRPOSIZIONATZEA.** Eskualdearen balio estrategikoa Gipuzkoako lurralde-garapeneko estrategiaren esparruan birkokatzea, eta horrela, dinamismoarekin, naturarekin eta 4.0 industriarekin lotutako marka sortzen laguntzea.

LAN-PROGRAMA EKO-INDUSTRIA 4.0

EKONOMIA KOOPERATIBO BAT, INDUTRIAREKIN MOTOR
GISA

LAN-PROGRAMA SMART EKO-ALDEA

NATURAN OINARRITUTAKO ESKUALDE BAT, HIRIKO ETA
LANDAKO OREKA MANTENTZEN DUENAK

LAN-PROGRAMA ELKARLANEAN: “KO” ESKUALDEA

TOLOSALDEA KO-LABORATIBOA, KO-EKINTZAILEA,
(E)KO-ARDURATSUA ETA KO-NEKTATUA

4 “EKO-INDUSTRIA 4.0” LAN-PROGRAMA. INDUSTRIA MOTOR GISA DUEN EKONOMIA KOOPERATIBO BAT.

4.1 HELBURU ESTRATEGIKOAK

LEHENIK
ENPRESA-OINARRIA
DINAMIZATZEA ETA
INDARTZEA

TOLOSALDEA SARETZEN ekimen sakon baten moduan sortu zen, eskualdean hainbat ekintza martxan jartzeko **Berrikuntzaren (teknologia), Industriaren (aurreratua), Adimenaren (talentua) eta (oinarri teknologikoko) Ekintzailatzaren arloetan. TOLOSALDEA SARETZEN-en helburua, alde horretatik, Tolosaldeko eskualdeko lehiakortasuna berrindartzea da, **berrikuntza eta enpresa-dinamizazioko tresna eraginkorrekin**. Tresna horiek egungo egoerara erabat egokitutako ikuspegi modernoak jaso beharko dituzte, gure eskualdeko enpresa-ehuna indartzeko eta zabaltzeko.**

TOLOSALDEA SARETZEN-ek eskualdeko enpresa- eta merkataritza-ehunaren hainbat laguntza- eta dinamizazio-jarduera jasotzen ditu. Jarduera horien guztien helburua da Tolosaldeko berrikuntzaren, prestakuntzaren, ekintzailatzaren eta lehiakortasunaren balio-kateen mailarik ahulenak indartzea. Era berean, eskualdeko enpresa-komunitatea ere astindu nahi du ekimenak, baita enpresa-ehunean networking-prozesuak eta “berrikuntza” aldagaia sozializatzeko prozesuak sortu ere.

TOLOSALDEA SARETZEN-en helburua da eskualdean **prestakuntza akademiko, profesional, etengabeko eta espezializatuaren** ekosistema bat eraikitzen jarraitzea, enpresen premietara gero eta gehiago egokituko den ekosistema bat. Prestakuntza-ekosistema horrek goi-mailako hezkuntza-sistemaren eta lanbide-heziketaren potentzial guztia ezarriko du eskualdeko enpresetan.

Berrikuntzaren ikuspegi horretatik, hainbat sektoretako, eta bereziki, hainbat industria-esparrutako enpresek eraginkortasun operatiboko erronka handiei egin behar diete aurre epe motzean eta ertainean, eta materialen erabileran, energia-kontsumoetan eta ekoizpen-prozesuetako beste hainbat salgaietan aurreztu beharko dute.

Era berean, epe ertainean eta luzean erronka sakonagoak badira, hala nola **sektoreak eraldatzea, produktuen berrikuntzan eta gorabidean diren teknologia berriak sartzean oinarrituta** (materialak, fabrikazio aurreratua, IKTak). Erronka garrantzitsua izango da, orobat, negozio-eredu berriek eskaintzen dituzten abantailak aprobetxatzeko gai izango diren negozio-eredu berriak ezartzea ere.

Ikuspuntu sektorialari dagokionez, hainbat aukera identifikatzen dira, eta aukera horiek dira, hain zuzen, aurreikusitako ekintzen ikuspegi estrategikoa orientatzen dutenak.

	2017ko EGOERA	AUKERA ESTRATEGIKOA
SEKTORE METAL- MEKANIKOA	- Presentzia nabarmena eskualdean. - Orokorrean, dimentsio txikiko enpresak - Euskadiko industriaren balio-kate nagusietan dago (ibilgailuak, garraioa, makinaria, petrolio&gas)	- Berrikuntzan eta fabrikazio-teknologia aurreratueta oinarritzen den posizionamendu lehiakor global batean aurrera egitea. - 4.0 Industriaren paradigma berrian integratzea. - Lehiakortasuna irabaztea, ekonomia zirkularreko irizpideak txertatuz.
PAPERAREN SEKTOREA	- Presentzia nabarmena eskualdean. Euskadiko paper-industriaren gunerik garrantzitsuenetako bat da. - Enpresa nahiko handiak ditu. - Presentzia du paperaren sektore orokorreko dinamika globaletan mugitzen ez diren hobi-segmentuetan.	- Aurrera egitea hobi-posizionamendua, berrikuntza eta teknologia oinarri harturik. - Sektorea eraldatzeko ahalmena, nanozelulosaren eremuko nanoteknologietan oinarrituta. - 4.0 Industriaren paradigma berrian integratzea. - Ingurumen-talka minimizatzea.
NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN SEKTOREA	- Landa-eremuan garrantzi nabarmena duen eskualdea da. - Nekazaritzako eta abeltzaintzako ekoizpenak zailtasunak ditu errentagarritasun-maila egokiak lortzeko. - Nekazaritzako elikagaien sektorea, ogia, gozotegi-produktuak eta okindegiko produktuak egiten espezializatua, baita	- Lehen sektorea berrindartzea goi-mailako produktuen segmentuetan, ekoizpen-sistema bereiziekin, ingurumena errespetatzen dutenekin eta lurraldearen kudeaketa iraunkorra mantentzen dutenekin. - Lankidetzan indartzea produktuen balio-kateetan.

	edariak ere. - Nekazaritza-segmentuaren eta eskualdeko elikadura-eta edari-industriaren artean harreman gutxi dago.	- Km 0 eta elikadura zirkularreko joera berriak ahalik eta gehien aprobetxatzea. - Merkaturatze-katea indartzea marjinak areagotzeko
MERKATARITZA	- Hiriko gune nagusiak, eta bereziki, Tolosako eta Villabonako eremuak, ardatz dituen merkataritza. - Dinamismo maila altua erakusten duten saltokiak (modernitatea ohiturarekin uztartzen da horietan)	- Merkataritza-zentraltasuna indartzea. - Merkataritzaren profesionalizazioa eta modernizazioa areagotzea, erosketa-ohitura berrietara egokituz (merkataritza elektronikoa) - Dinamismoa indartzea, hiriko eremuan kultura-eta aisialdi-jarduerekin lankidetzan jardunez.
ZERBITZU AURRERATUKO SEKTOREA	- Presentzia gutxi eskualdean.	- Eskualdean presentzia indartzea, espezializazio teknologikoa eta berritzailea indartzeko
TURISMO IRAUNKORRA	- Gorabidean da jarduera hau, Euskadiko kultura, gastronomia eta natura oinarrian direla.	- Eskualdeko ahalmenekin koherentea den marka-irudi bat sortzea, auzoko eskualdeekin dauden konexio-puntuak aprobetxatuz. - Pertsonentzako jarduera erakargarriak sortzeko ahaleginean sakontzea. - Turismo iraunkorreko esparruarekin lotutako enpresen sorrera dinamizatzea - Ingurumena errespetatzen duten turismo-azpiegiturak indartzea.
JARDUERA-SEKTORE GUZTIEN ZEHARKAKO JARDUERAK	-	- Enpresa barnean langileen parte-hartzea eta lankidetzaren ereduaren aurrera egitea. - Produkzio-prozesuak optimizatzea - Berrikuntza teknologikoa eta ez teknologikoa barne hartzea (negozio-eredu

		berriak). - Enpresen arteko lankidetza eta enpresen eta berrikuntza bultzatzen duten eragileen arteko lankidetza ahalbidetzea
--	--	--

BIGARRENA 4.0 INDUSTRIA AURRERATUA BULTZATZEA

Tolosaldeko industriaren zati handi batek eraldaketa-prozesu konplexu bati egin beharko dio aurre. Izan ere, industria konbentzional eraginkor eta automatizatu batetik beste era bateko industriara jauzi egin behar du. Industria horrek gorabidean diren teknologia giltzarri multzo baten potentziala aprobetxatzen du (*Key Enabling Technologies*, edo KET deritzen teknologiak dira: mikro eta nanoelektronika, nanoteknologia, bioteknologia industrial, material aurreratuak, fotonika eta manufaktura aurreratuak). Industria berri horrek, gainera,



sistemei, makinei eta produktuei adimena eta elkarreragiteko gaitasuna gehitzen die. Era berean, malgutasuna du, bere eskala merkatuko premietara egokitzeko. Eta, azkenik, planetaren iraunkortasuna mantentzen

laguntzen du, materialen eta baliabideen kontsumoa optimizatuz.

4.0 Industria Aurreratu terminoak laugarren industria-iraultza barnebiltzen du. Sistema xurgatuen garapenak erraztutako eboluzio teknologikotik, sistema horien konektibitatetik eta horren ondorioz sortzen den mundu fisikoaren eta birtualaren arteko bateratasunetik sortu da iraultza hori. Horrek guztiak objektuak, informazioa eta pertsonak bateratzeko



gaitasunak sortzen ditu, eta gaitasun horien bidez jauzi

kualitatibo bat eman daiteke ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko eta erabiltzeko prozesuan.

4.0 Industria Aurreratuan sartzeak jauzi kualitatibo bat ematea dakar enpresen balio-katearen antolaketan eta kudeaketan. KET teknologia horiek (*Key Enabling Technologies*), kolektibitatearen ugalketak, hodeiko konputazioaren moduko teknologia berriak agertzeak, gauzen Internetak, robotika aurreratuak eta adimen artifizialak, integrazio bertikalerako eta horizontalerako sistemek, M2M komunikazioak, sistema ziberfisikoeak, Big Data edo zibersegurtasunak aukera berriak eskaintzen dizkie industriari, eta aurre egin beharreko erronka berriak azaleratzen dituzte.

Eskualdeko industriak industria-paradigma berri horretarako trantsizioa zuzentzea eta gidatzea nahi du TOLOSALDEA SARETZENek.

Horretarako, **berrikuntza eta I+G+b proiektuak martxan jartzea babesteko mekanismo berriak jarriko ditu martxan enpresetan**, eta aldi berean, teknologia-zentroek, unibertsitateek eta enpresa aitzindariak eskualdeko enpresei 4.0 industria aurreratuaren potentziala eta ezarpen praktikoak erakustea ahalbidetuko du.

Tolosaldeak Plan honen bidez bat egiten du bai Gipuzkoako Foru Aldundia (*Gipuzkoa 4.0 Fabrikazio Aurreratuko Sarea*), bai Eusko Jaurlaritzak (*Euskadiko 4.0 Fabrikazio Aurreratuko Estrategia*) gaur egun gure Lurraldean eratzen ari diren planteamenduekin.

HIRUGARRENA
BERRIKUNTZA ETA
ENPRESA-
GARAPENeko
INTERESGUNE BAT
GARATZEA
ELEKTROMUGIKORT
ASUNAREN
EREMUAN

Tolosaldea-Goierri ardatzean zehar mugikortasun elektrikoko eta energia-gaietako enpresa aitzindariak daude, eta industria osagarri oso lehiakorreko sare sendoa dago. Eskualdeak kokapen pribilegiatua du, herrialdeko zentro teknologikoengandik hurbil, eta Lurraldeko industria eraldatzeko prozesuak zuzentzeko bokazioa du. Ondorioz, **elektro-mugikortasun gaietan teknologia- eta industria-garapen arloko interesgune bat sendotu nahi da eskualdean, Goierriko entitateekin eta enpresekin batera partekatutako estrategiaren bidez.**

Alde horretatik, TOLOSALDEA SARETZENek bat egiten du Gipuzkoako Foru Aldundiko *Mugikortasun Elektrikoaren Industria Garapenerako Gipuzkoako Estrategiarekin*. Foru Aldundiak berak zuzentzen du estrategia hori, *Gipuzkoa Eraikiz* garapen sozioekonomikoko estrategiaren ardatz nagusienetako bat baita, eta azken horren eskura jartzen baititu eskualdeak eskaintzen dituen aukera, azpiegitura eta zerbitzu guztiak.

TOLOSALDEA SARETZENek *Mugikortasunaren Esperimentaziorako Laborategi* bat hartu nahi du eskualdean, lurraldeko mugikortasun elektrikoko eta energia biltegitartzeko ekosistemako eragileei laguntzeko produktuak edota zerbitzuak ingurune errealean (hiri barruko eta hiri arteko inguruneetan) probatzen, Tolosaldea eremu horretan erreferente izan dadin, eta Gipuzkoa eremu horrekin lotutako industria-garapeneko interesgune izan dadin.

Esperimentazio eta teknologia berrien espazio hori enpresek, jakintza eskaintzen duten entitateek eta entitate publikoek osatutako sare baten bidez kudeatuko da. Lankidetzeta-sare horrek soluzioak garatzen eta balioesten lagunduko du, enpresa berriak, negozio-eredu berriak, I+G+b jarduerak eta hedapen-jarduerak sortzeko asmo argiarekin.

Gainera, eskualdean ezaugarri horietako laborategi teknologiko bat izateak Tolosaldean azpiegitura zientifiko-teknologikoetan dagoen gabezia arinduko luke. Izan ere, hutsune horren ondorioz, ez dira azaleratzen esperientzia, talentu eta ideia-trukeen eskutik sortu ohi diren dinamika positiboak. Hala, zentro teknologiko esperimental bat izateak aukera hori emango lioke bere ingurune hurbileko enpresa-oinarriari.

TOLOSALDEA SARETZENek Tolosaldea-Goierrri ingurunean **elektro-mugikortasunarekin lotutako teknologietan espezializatutako benetako start up-en hub bat sortzen lagundu nahi du**. Horretarako, ahalegin garrantzitsu bat egingo du industria-garapena sustatzeko hainbat tresna ekimenaren zerbitzura jartzeko.

TOLOSALDEA SARETZEN-ek, gainera, *Smart Mobility* eta **elektro-mugikortasun gaietan lurraldean bertan jarduerak probatzeko *Living Lab*** bihurtu nahi du Tolosaldea. Hala, Tolosaldeak esperientzia pilotua izan nahi du Gipuzkoa elektro-mugikortasunaren aitzindari izan dadin Europan, eta Euskadiko lehen eskualdea izan dadin mugikortasun elektrikoaren alde egiten maila guztietan: hirigintzan, industrian eta teknologian.

LAUGARRENA
GIPUZKOAN
NEKAZARITZAKO
ELIKAGAIEN
INDUSTRIA-
GARAPENAREN
BURU IZATEA

2016an eskualde arteko ekimen garrantzitsu bat jarri zen martxan Gipuzkoako nekazaritzako elikagaien industria garatzeko. Tolosaldeko, Oarsoaldeko, Urola Kostako, Buruntzaldeko eta Deba Barrenako eskualdeetako garapen-agentziek zuzendu zuten ekimen hura, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak babestu zuen.

Ekimenak helburu hau du: trakzio-proiektuak gauzatzea Gipuzkoako nekazaritzako elikagaien Balio Katean parte hartzen duten nekazaritzako ustiategi, enpresa, prestakuntza-zentro eta gainerako entitateentzat. Lehengaiak erauzi eta produktu freskoa eskuratzen den unetik, produktu elaboratuak egiten dituzten enpresetara arte. Ekoizle txikienetik tokiko merkataritzara arte. Ekipamendu- eta azpiegitura-enpresetatik produktuaren banatzaileetara arte.

TOLOSALDEA SARETZENek lortutako lankidetza-giroa berrindartu nahi du, eta era berean, beste eragile batzuekin batera Tolosaldeetik proposamen integratzaileak gidatu nahi ditu hainbat lan-eremutan

BOSTGARRENA

EKONOMIA ZIRKULARRA BULTZATZEA ESKUALDEKO ENPRESETAN

TOLOSALDEA SARETZEN-ek eskualdeko enpresa-oinarria **sentsibilizatzeko eta mugiarazteko tresna** izan nahi du, energia-baliabideen erabilera pixkanaka-pixkanaka minimizatuko duen ekonomia zirkularreko eredua zabaltzeko, produktua sortzen den une beretik ingurumen-inpaktuak kontuan hartzeko eta stocken eta materialen, energiaren eta zerbitzuen fluxuen kudeaketa optimizatuaren aldeko apustua egiteko.

TOLOSALDEA SARETZEN-en iritziz gure ingurunean nagusi izan den “hartu, egin, baztertu” ekonomia-eredu lineala bere gaitasun fisikoaren mugara iristen ari da, eta arriskuan jartzen ari da garapen iraunkorreko eredu baten aldeko prozesua. **Ekonomia zirkularra aukera erakargarria eta bideragarria da.** Ekonomia zirkularraren arabera, produktuaren garapena etengabeko ziklo bat da, eta ziklo horri esker kapital naturala mantentzen eta hobetzen da, eta baliabideen erabilera optimizatzen da. Ekonomia zirkularrak kalteak konpontzen ditu eta egoera lehengoratzen laguntzen du, eta, era berean, haxe du helburu: produktuen, osagaien eta baliabideen erabilera mantentzea eta ziklo ekonomikoan zehar haien balioa handitzea. Gainera, modu eraginkorrean funtzionatzen du eskala mota guztietan.

TOLOSALDEA SARETZEN-en xedea da eskualdeko enpresek eko-berrikuntzarekin lotura duten proiektuak bultzatzea, ekonomia zirkularraren azpian dauden hainbat printzipio eta negozio-ereduren arabera:

- Eko-diseinua: produktu batek bizi-zikloan dituen ingurumen-inpaktuak hartzen ditu kontuan eta produktua sortzen denetik zaintzen ditu.
- *Serbitizazioa*: erabilera sustatzen du jabegoaren aurrean, zerbitzu baten salmenta ondasun baten aurrean.

- *Bigarren erabilera*: kontsumitzaileen hasierako premiekin bat ez datozen produktuak sartzen dira berriz ere zirkuitu ekonomikoan.
- *Berrerabilera*: zenbait hondakin edo hondakinen zenbait zati berrerabiltzea, produktu berriak egiteko oraindik funtziona baitezakete.
- *Konponketa*: hondatutako produktuei bigarren bizitza bat ematea.
- *Birmanufaktura*. Produktua berrindustrializatzea, produktu erabiliak oinarri harturik, berriz ere merkatuaren eta erabileraren ziklora eramateko.
- *Birziklatzea*: hondakinetan dauden materialak aprobetxatzea.
- *Balorizazioa*: birziklatu ezin daitezkeen hondakinak energia sortzeko aprobetxatzea.

4.2 LAN-ILDOAK

1 LAN-PROGRAMA EKO-INDUSTRIA 4.0 EKONOMIA KOOPERATIBO BAT, INDUSTRIAREKIN MOTOR GISA

Berrikuntzaren dinamizazioa

4.0 EKO-INDUSTRIA Hedapen- eta sentsibilizazio-jarduerak berrikuntzaren, 4.0 industria aurreratuaren eta ekonomia zirkularraren inguruan

4.0 ERAGILEAK Berrikuntzaren, 4.0 industria aurreratuaren eta eko-berrikuntzaren eragile mobilizatzailerak

ASTINDU! Ideia berriak astintzea

ELIKA-INDUSTRIA Nekazaritzako elikagaiei bultzada ematea

MERKATARITZA BAI – Merkataritza dinamizatzeko jarduerak

Prestakuntza eta talentua barneratzea

TALENTUA Prestakuntza eta gaikuntza espezializaturako agenda

E-UNIBERTSITATEA Unibertsitateko graduak eta graduondokoak ezartzea elektro-mugikortasunaren eremuan

Enpresa berritzaileak azeleratzea

EKIN FONDOA Enpresa berritzaileentzako baliabideak

TEKNO-LAB-AK Laborategi kolaboratiboak

EMUGI TOLOSALDEA Elektro-mugikortasuneko enpresa-parkea

4.2.1 BERRIKUNTZA DINAMIZATZEA

1. PROGRAMA 4.0 EKO-INDUSTRIA HEDAPEN- ETA SENTSIBILIZAZIO- JARDUERAK BERRIKUNTZAREN, 4.0 INDUSTRIA AURRERATUAREN ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN INGURUAN

TOLOSALDEA SARETZEN-ek sustatuko du enpresak **hedapen- eta dibulgazio-jardueretara** joatea, bai ingurune geografikoki hurbiletan egiten direnetera zein Internet bidez egiten direnetera. Horretarako, **informazio-ekintzak eta laguntzak eskatzeko deialdiak** jarriko ditu martxan, enpresek berrikuntzarekin, 4.0 industria aurreratuarekin eta ekonomia zirkularrarekin lotutako hedapen-ekitaldietan, ikastaroetan, jardunaldietan eta jardueretan parte har dezaten.

Gainera, TOLOSALDEA SARETZEN-ek **ziurtatuko du eskualdeko enpresentzat interesgarriak izan daitezkeen dibulgazio-jardueren agenda bete bat** egingo dela **eskualdean bertan** (aurkezpenak, show roomak, mahai-inguruak, mintegiak). Agenda horrek aukera emango du Tolosaldea Goierri-Tolosaldea korridoreko enpresen eta entitateen **interkonexio eta networking**aren zentro gisa posizionatzeko.

Bereziki, elektro-mugikortasunaren eta Smart Mobility-aren industriarekin lotutako jarduerak garatuko dira. Era berean, TOLOSALDEA SARETZEN-ek **Lurraldeko jakintza-zentroetako eta garapen teknologikoko zentroetako hedapen-ekimenei** irekiko dizkie ateak, baita enpresa-lehiakortasunerako proposamenak eta metodologiak merkaturatu nahi dituzten **aholkularitza eta ingeniaritza teknologikoko enpresei** ere.

2 Programa
4.0 ERAGILEAK
BERRIKUNTZAREN,
4.0 INDUSTRIA
AURRERATUAREN
ETA EKO-
BERRIKUNTZAREN
ERAGILE
MOBILIZATZAILEAK

Helburua da I+G+b enpresa-proiektuak bultzatzea lehiakortasuna hobetzea helburu duten eskualdeko enpresetan, Euskadiko sistema zientifikoaren eta teknologikoaren gaitasunak ahalik eta gehien aprobetxatuz.

Ikuspuntu estrategikoak ezartzen duenaren arabera, TOLOSALDEA SARETZEN-en esparruan “berrikuntza mobilizatzeko eragile” bat sortu behar da, enpresei (edo enpresa-multzoei) lagun diezaien berrikuntza-prozesu osoan zehar.

Eragile mobilizatzaille horrek **coaching-jarduerak** egingo ditu enpresako arduradunekin, eta balizko proiektu interesgarriak identifikatzen lagunduko du. “*Antena teknologikoa*” den aldetik, proiektuaren bazkide/hornitzaile teknologiko onenarekin jarriko da harremanetan, proiektuaren proposamenak hezurmamituko ditu eta finantzaketa osagarriaren bilaketa bideratuko du horretarako argitaratutako deialdietan.



3 Programa **ASTINDU !** IDEIA BERRITZAILEAK ASTINTZEA



Eskualdez gaindiko enpresa-ideia berritzaileen deialdiak eta lehiaketak jarriko ditu martxan, enpresa eta entitate garrantzitsuen kolaborazioarekin eta ko-finantziaketarekin, ideia onenak aintzat hartzeko eta eskualdean eragin potentzial handiena dutenak ezartzeko.

Deialdiak irekiak dira. Ez dira eskualdera mugatzen eta horien hedapena eta publizitatea Gipuzkoa osora eta EAera zabalduko dira. Ideiak Tolosaldean edo Tolosaldetik ezartzeko pentsatuak izango dira. Aldizka, lehiaketarako deialdiak sektore edo merkatu ezberdin batean espezializatuko dira.

4 Programa ELIKA-INDUSTRIA NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN INDUSTRIARI BULTZADA EMATEA

Eskualdean eta Lurralde osoan nekazaritzaren eta nekazaritzako elikaduraren sektorea finkatzeko garatzen ari diren jarduerak indartzea.

- **Merkatuak eta kontsumitzaileak zein diren jakitea.** Komunikazio eta marketin estrategikoko jarduerak. Taldeko merkaturatze-kanalak bateratzea eta integratzea, negoziazio-gaitasuna handitzeko.
- **Produkzioaren koordinazioa.** Ustiategi guztien produkzioaren eta merkatuarekiko harremanen koordinazio-mekanismoa berrindartzea.
- **Ikerketa eta Garapena.** Produktuak gama berrietara eraldatzea eta berritzea merkatua garatzeko. Lehengaiak ekoiztetik, balio handiagoko eta merkatu hurbilean zein Lurraldeko banaketa- eta ostalaritza-sare handien artean eskaera gero eta handiagoa duten produktuak sortzera. Tolosaldeak eskualdeko nekazaritzako elikagaiak ekoizten dituzten enpresen teknologia- eta kudeaketa-gaitasunak berrindartu nahi ditu, nekazaritzako elikagaiak esperimentatzeko laborategi baten laguntzarekin, nekazaritzako eta abeltzaintzako produktu eta azpiproduktu berriak lortzen laguntzeko, kalitate, balio erantsi eta errentagarritasun-irizpideei erantzunez.
- **Iraunkortasuna.** Ingurumenarekin eta komunitatearekin arduratsuak diren proiektuak garatzea, nekazaritza-ustiategietan mikro-inbertsioak egiten lagunduz, produkzioa optimizatzeko, produkzioak naturaren ekosisteman duen inpaktua minimizatzeko, energia-kontsumoa murrizteko eta ustiategi bakoitzean energia berriztagarria sortzen laguntzeko. Tolosaldeak berrikuntza teknologikoko azpiegitura du Zizurkilgo Fraisoro Ingurumen eta Nekazaritza Laborategian.
- **Lehiakortasuna eta masa kritikoak.** Nekazaritzako elikagaien eko-sistema finkatzea, produktuaren balio-katean


lankidetzak-ekintzak eginez, berrikuntza- eta ekintzailatza-proiektuak, negozioak sortzeko proiektuak, eta komunikazio- eta hezkuntza-proiektuak egite aldera. Helburua da elikagaien balio-kate iraunkorrak eta lehiakorrak eraikitzeari bultzada ematea, partekatutako azpiegiturekin edota zerbitzuekin, kostuak optimizatzeko (banaketa, erosketak), asmo handiagoko proiektuak garatzeko eta prestakuntza jarraituan eta espezializatuan lehentasunezko sarbidea izateko, bai nekazaritza eta abeltzaintzako tekniketan zein enpresa-kudeaketan ere.

5 Programa
MERKATARITZA BAI
MERKATARITZA
DINAMIZATZEKO
JARDUERAK

Merkataritza elektronikoaren, Interneten eta mugikorraren inguruko merkataritza-formatu berriekin eta negozio-eredu berriekin lotutako jarduerak garatzea.

Horretarako, hainbat **ideia-deialdi sustatuko** dira, merkatarien elkarteek edo interesa duten hainbat saltokiren arteko elkarteek bultzatutako **ekimen berritzaileak martxan jartzeko**.

4.2.2 TALENTUA PRESTATZEA ETA ENPRESETARA BILTZEA



TOLOSALDEA SARETZEN-ek eskualdeko enpresa-ehunaren premiekin lotutako **mintegiz, ikastaro espezializatuz eta prestakuntza-jarduera teknologikoz** osatutako agenda lehiakor bat erakartzeko eta martxan jartzeko ardura hartuko du.

Enpresen premiak jakin ahal izateko, **komunikaziorako eta eskaerak identifikatzeko linea ireki bat** mantenduko du. Horretarako, Tolosaldeko enpresa-ehunak zabaldutako berrikuntzarako eragile mobilizatzaileen sarea aprobetxatuko du. Horrez gain, interakziorako hainbat kanal izango ditu irekita sare sozialen bidez edo harremanetarako beste hainbat tresnen bidez.

Era berean, ekimen bat bultzatuko du eskualdeko enpresa txikietan eta ertainetan **talentu gaztea eta goi-mailako kualifikazioa duena** txertatzeko ekintzak indartzeko, haien gaitasun teknologikoak eta kudeaketa-gaitasunak birkualifikatze aldera (upgrade). Teknologia eta kudeaketa arloko talentu horri bide emateko, **goi mailako ikasketetako, unibertsitate-graduoko edo graduondoko ikasleak pixkanaka-pixkanaka sartuko dira** eskualdeko enpresen diziplina teknikoetan, ordaindutako lan-praktikak eginez (curriculumaren arabera edo ez) edo praktiketako lan-kontratuen bidez.



7 Programa E-UNIBERTSITATEA UNIBERTSITATEKO GRADUAK ETA GRADUONDOKOAK EZARTZEA ELEKTRO- MUGIKORTASUNAREN ESPARRUAN



TOLOSALDEA SARETZEN-ek, arestian esan dugunez, eskualdean elektro-mugikortasuneko interesgune bat sortzeko oinarriak indartu nahi ditu, eta konpromiso horren ildoan, nodo berri bat sortu nahi du Euskadiko unibertsitatearen eko-sistema barruan.

TOLOSALDEA SARETZEN-ek akordioak lortuko ditu Euskadiko unibertsitateekin (publikoekin edo pribatuekin) edo Europako interes bereziko beste hainbat unibertsitaterekin, eskualdean **elektro-mugikortasunarekin eta smart mobilityrekin lotura duten gaien inguruan gradu-ziklo bat ezartzeko, baita graduondoko gero eta ziklo gehiago ere.**

Helburua da balioa sortzeko gaitasuna berrindartzea eta eskualdeko industriarako sinergiak sortzea.

4.2.3 ENPRESA BERRITZAILEAK AZELERATZEA



8 Programa EKIN FONDOA ENPRESA BERRITZAILEENTZA KO BALIABIDEAK



TOLOALDEA SARETZEN-ek plataforma bat sortzea bultzatuko du, **eskualderako interesgarriak diren enpresa-proiektuak azkarrago gauzatzeko**. Plataforma horrek **inbertsio-fondo publiko-pribatuaren forma edo inbertitzaileen sare forma** izango du. Helburua da eskualdearen ekintzailatza-bokazioa indartzea, eta start-up-ak eta enpresa berri berritzaileak erakartzeko duen gaitasuna berrindartzea.

Funtsaren talde sustatzailea enpresa- eta inbertitzaile pribatuekin eta eskualdeko eta Lurraldeko erakundeetako inbertitzaileekin osatuko eta kapitalizatuko da. Inbertitzaile eta erakunde horiek guztiek beren baliabideak jarriko dituzte Tolosaldean enpresa berriak eta enpresa-garapeneko proiektuak finantzatzeko. TOLOSALEA SARETZEN-ek inbertitzeko gaitasuna duten inbertitzaileak identifikatzeko ardura hartuko du (bai pertsona pribatuak zein inbertsio-enpresak eta entitateak ere). Bestetik, Plan Estrategikoan jasotzen diren eskualderako ideia berritzaileak eta proiektu interesgarriak hautemateko programak eta deialdiak jarriko ditu martxan. Era berean, enpresa berri horiek eskualdean existitzen diren azpiegiturak, ekipamenduak eta beste hainbat baliabide erabiltzeko erraztasunak emango ditu (inkubazio-espazioa, ekipamendu partekatutako edota bereziak, lankidetzak-laborategiak, tresneria, funtzio anitzeko espazioak, welcome office), enpresa horiek kudeatzen dituzten entitateekin lankidetzak-hitzarmenak sinatuz.

Inbertsioa batez ere bi alderdi hauek konbinatzen dituzten enpresa-proiektuetara bideratuko da: batetik, **izaera berritzailea (beren negozio-ereduan, produktuen katalogoan, kudeaketa-ereduan) eta, bestetik, osagai teknologiko handia (elektro-mugikortasuna, energia-eraginkortasuna, material aurreratuak, manufaktura gehigarria, robotika, 4.0**

industria). Kapitalizazio-fasean funtsa osatzen dutenek jarritako berariazko funtsa erabiliko da, eta era berean, kanpoko beste funts batzuk eskuratzeko prestaketa egingo da.

TOLOSALDEA SARETZEN-ek eskualdeko plataforma horrekin duen helburu nagusia da merkatuan enpresa lehiakorak eta kaudimendunak jartzea. Beraz, enpresek beren autonomia lortzen dutenean, azkartze-funtzioak zentzua galtzen du. Enpresak partizipazioak berreskuratzen ditu eta plataformak beste enpresa berri bat sortzeko konpromisoa har dezake.

Gure eskualdean enpresa berritzaile berrien edota nolabaiteko eduki teknologikoa duten enpresa berrien ekosistema txiki/handi bat izatea onuragarri da **Tolosaldea bere ingurune** **lehiakortasun-mapan birkokatzeko**, eta tresna eraginkorra da, besteak beste, elektro-mugikortasunaren interesguneari forma emateko.

9 Programa TEKNO-LAB-AK LABORATEGI KOLABORATIBOAK

Azpiegitura aurreratu, ekipamendu teknologiko eta baliozko instalazio multzo bat enpresa-ehunaren zerbitzura jartzea eskualdean, enpresen eta ekintzaileen artean erabil dezaten, esperimentatzeko eta merkatura bideratutako I+G gauzatzeko. Helburua da Lehiberri zentroan dauden azpiegiturak manufaktura aurreraturako ekipamendu teknologikoarekin osatzea, industria-ehun berria sortzen laguntzeko eta eskualdeko jarduera sektorial nagusietan proiektu teknologikoki berritzaileak garatzeko. Asmoa da eskualdean laborategi multzo lehiakor bat sortzea.

Laborategiak Apatta poligonoko Lehiberri zentroan kokatuko dira batez ere, baita beste hainbat enpresa-poligonotan ere, haien balioa handitzeko eta eguneratzeko. Laborategi horien xedea **diseinatzaileen, ingeniarien eta ekintzaileen komunitateak** sortzea izango da, ekipamendu erabilgarriak aprobeitza ditzaten, merkatuan produktu berriak eta aukera berriak sortze aldera.

Inguruko lanbide heziketako eskolekin, zentro teknologikoekin eta unibertsitateekin azpiegiturak ez bikoizteko, lankidetzaren prozesu bat egingo da horrelako eragileekin, **lankidetzaren plataformak** aukeratzeko gure enpresa-ehunaren etorkizuneko diziplinak bultzatzeko: material aurreratuak eta nanomaterialak, fabrikazio aurreratuak eta 4.0 IKTak (IoT, Big data, errealitate birtuala).

Adibide gisa, gure inguruko enpresentzat oso interesgarriak izan daitezkeen batzuk aipatzeko ditugu jarraian:

- **Elektro-mugikortasuneko laborategia.** Esperimentazio-espazio bat, lurraldeko mugikortasun elektrikoko eta energia biltegiratzeko ekosisteman diharduten eragileei horrekin lotutako produktuak edota zerbitzuak probatzen laguntzeko ingurune errealean (hirikoetan edota hiri artekoetan).

- **4.0 Industriarako laborategia.** Manufakturako operazio konplexu baten osagai guztiak bateratzeko ekipamendua barne hartzen ditu laborategi horrek (hornitzaileak, instalazioa, produktuak...), sistema ziberfisikoen kontzeptu nagusiaren arabera. Konputazioan oinarritutako algoritmoen bidez eta Interneten integratuta, denbora errealean kontrolatutako sistemak dira aipatutakoak.
- **Fabrikazio laborategia,** partekatutako ekipamenduekin, enpresak sortzeko eta industria garapenerako. Fabrikazio digitaleko laborategi bat edo FabLab bat izaera digitaleko bokazio teknologikoak sortzeko, partekatzeko, ikasteko eta garatzeko espazio bat da. Horien bidez aukera izaten da produktu berriak sortzeko, eta sormenezko eta networking bidezko dinamikak indartzeko, sormen-profil oso ezberdinekin.
- **Materialen laborategi aurreratua.** Hardware-ekipamendua eta softwarea biltzen ditu laborategiak, proba estatikoetarako, dinamikoetarako eta inpaktu-probetarako, materialen berezitasuna zehazteko eta haien manufakturarako.
- **Manufaktura gehigarriaren laborategia.** Piezak inprimatuko dira material plastikoetan, eta ekipamendu aurreratuago bat erabiliko da material metalikoetan piezen diseinua, inpresioa eta azterketa egiteko (DMLS eta SLM).
- **Robotika-laborategia.** Software, ekipamendu osagarri eta robot aurreratuekin, manufaktura malgua eta kolaboratiboa egiteko.
- **Nekazaritzako elikagaien esperimentaziorako laborategia,** nekazaritzako eta abeltzaintzako produktu eta azpiproduktu berriak lortzeko, kalitate, balio erantsi eta errentagarritasun-irizpideen arabera.


10 Programa
EMUGI
TOLOSALDEA
ELEKTRO-
MUGIKORTASUNeko
ENPRESA-PARKEA

Lursailak, nabeak eta bulegoak dituen enpresa-ingurune bat egokitzea, elektro-mugikortasunaren sektoreko enpresen industria-eta logistika-garapeneko prozesuetarako. Era berean, parke horrek esperimentaziorako laborategi teknologiko bat ere hartuko du, mugikortasun-elektrikoaren eta energia biltegitratzearen ekosisteman diharduten eragileei (enpresei eta start-upei) elektro-mugikortasunarekin lotutako produktuak edota zerbitzuak probatzen laguntzeko. Co-working eta enpresa-inkubazioko espazioak egokituko dira sortzen ari diren enpresa-proiektuei tokia egiteko.

Parkean **jarduerak** (networking, prestakuntza, trukea, proiektzioa, marketin digitala) **dinamizatzeko** eta espazioak merkaturatzeko **langileak** izango dira, eta TOLOSALDEA SARETZENek bultzatutako **inbertsio-funts publiko-pribatua** erabili ahal izango da, mugikortasun adimentsuaren eta elektro-mugikortasuneko industriaren enpresetan inbertitzeko.

5 “SMART EKO-HERRIA” LAN-PROGRAMA. NATURAN OINARRITUTAKO ESKUALDE BAT, HIRI ETA LANDA-EREMUAREN ARTEKO OREKAN

5.1 HELBURU ESTRATEGIKOAK



TOLOSALDEA SARETZEN ekimenaren hurrengo urteetarako helburua da eskualdearen hirigintza-garapenerako eta lurralde-plangintzarako gidalerroak birbideratzea. Hauxe da gakoa: hiriko, industriako eta lurraldeko **planteamenduan ingurunearekiko konpromisoa txertatzea**, ingurumenerako eskubidea bermatuko duen kultura-eredua aldatzeko eta aldaketa hori ahalbidetuko duten tresnak sortzeko.

TOLOSALDEA SARETZEN-ek Hirigintza-Industria planteamenduari aurre egiteko ikuspegi ekosistemikoa eta materialen, energiaren eta pertsonen fluxuaren ikuspegia hartzen ditu kontuan, **ingurumenarekiko erantzukizunean** oinarritutako gidalerro batzuei jarraituz.

Eraikuntza iraunkorra

Helburua da hiriko sarea zein industrialdeak jardunbide egokiekin indartzea, isurketak eta energia-kontsumoa pixkanaka-pixkanaka murrizteko konpromisoa hartuz, modu horretara ingurumenarekiko inpaktua murrizteko, ingurune osasungarriagoak izateko eta geure buruarekin zein eskualdearekin ere zorrotzagoak izateko.

Horretarako, auzoak, hiriguneak eta industrialdeak energia-eraginkortasun, eskuragarritasun eta birgaitze maximoko programetara biltzen joango dira pixkanaka.

Energiaren Euskal Erakundearekin eta Lurraldeko beste entitate arduradunekin lankidetzan, egungo bizitegi- eta industria-eraikinen

inguratzailleetan zein horien argiztapen- eta berogailu-sistemetan ere esku-hartzeak egitea sustatuko da. Prozesu horrek **eraikuntzetan** eta, oro har, **eskualdean energia-kontsumoa modu eraginkorrean murrizten** lagunduko du.

Auzo berriak eta enpresa-parkeak eratzeari dagokionez, eskakizun zehatzak jasoko dira planteamenduan; besteak beste, energia-kontsumoa ahalik eta txikiena izatea eta ekosistema ahalik eta gutxien asaldatzea.

Eskala txikian energia berriztagarria sortzea

Energia ekoizteko eredu deszentralizatuak ere sustatuko dira, energia-hornidurarako, ur beroa hornitzeko edo garapen berrietako (banakakoak edo zentralizatuak) berogailu-sistemak elikatzeke. Alderdi teknikoak eta legeriaren arabekoak kontuan hartuz, baliabide hauek instalatzea sustatuko da: plaka fotovoltaiakoak, zur-industria iraunkorretatik datorren biomasarekin elikatutako galdarak, energia geotermikoko edo eraikuntzatik beraietatik datorren hondakin organikoen bidez sortutako biogasezko mikro-instalazioak.

Sektore publikoaren energia-eredugarritasuna

Udalerrien eta sektore publikoaren ikuspuntutik, TOLOSALDEA SARETZEN-ek espazio publikoan energia kontsumoa gutxitzeko konpromisoa eskatuko die erakunde guztiei. Alde batetik, **argiztapenaren eta semaforoaren ordez sistema eraginkorragoak** jartzeko prozesua osatuz. Bestetik, eskualdeko eraikin publiko guztietan (ikastetxeetan, kiroldegietan, osasun-etxeetan, udalerriko bulegoetan, kultura-etxeetan) **energia-eraginkortasuneko ziurtagiriak** eta **NZEB** (Nearly Zero Energy Buildings) **ziurtagiriak** izateko obligazioa ezarriz.

Energia-eraginkortasuna enpresetan

Azkenik, eskualdez gairdiko erakundeeekin eta agentzia publikoekin lankidetzan, enpresen berogailu-, hozketa-, argiztapen- eta logistika-sistemen eraginkortasuna sustatuko da **industria erabat eko-arduratsua** izateko bide gisa.

BIGARRENA **MUGIKORTASUN-** **EREDU ERABAT** **BESTELAKOA** **ANTOLATZEA**

TOLOSALDEA SARETZEN-ek mugimendu kolektibo bat bultzatu nahi du gaur egun nagusi den mugikortasun-ereduaren kultura-aldaketa eta herritarren inplikazioa bultzatzeko; alegia, ibilgailu pribatuaren erabilera izugarriari aurre egiteko, eta eskualdeko biztanleen mugikortasun-premia nagusiei erantzuteko. Mugikortasun-eredu iraunkor baterantz trantsizioa egiteko, etengabe egin behar da aurrera hainbat bidetan, erabakitasunez eta erakunde guztiekin modu koordinatuan.

Oinezkoan eta garraio kolektiboan oinarritutako mugikortasuna

Lehenik eta behin, erronka kultura eta hezkuntza mailakoa da, ibilgailu pribatua pixkanaka-pixkanaka alde batera uzteko, eta eskualdeko hirigune handietan desplazamendu partikular gehienak batez ere oinez, bizikletaz, eta horrela dagokionean, garraio kolektiboan egiteko. Sentsibilizatzea, barrutiak oinezkoentzat jartzea, bidegorriak berrindartzea, horien erabilera sustatzea eta hiriko autobusen maiztasunak hobetzea dira lehen helburu estrategiko honen funtsezko elementuak.

Hiri-arteko mugikortasun elektrikoa

Bigarrenik, TOLOSALDEA SARETZEN-ek hiriarteko mugikortasun elektrikoa pixkanaka eta behin betiko ezartzearen alde egiten du apustu, hiriguneak gun e funtzionalekin eta eskualdeko industrialde eta hurbileko inguruneekin konektatzeko.

Mugikortasun-eredua aldatzeko prozesu horretan, TOLOSALDEA SARETZEN-ek Goierriko eskualdea hiriburuarekin lotzen duen egungo trenbidearen azpiegitura beste era batera erabiltzea planteatzen du. Adifen azpiegiturak hainbat aukera eskainiko dio eskualdeari, euskal abiadura handiko lineak irekitzen direnean. Helburua da egungo aldiriko linea metropoli-trenbide bilakatzea, egungo ibilbidean zehar zabaltzen diren eskualdeko hirigune, enpresa-

barruti eta gune garrantzitsu guztiak metroaren maiztasunarekin lotu ahal izateko. Geltokiek disuasio-aparkalekuak eta bus elektrikoko lantzaderak izango lituzkete, bai Tolosaldeko, bai Goierriko gune eta poligono txikiagoetaraino.

Eskualde mailako mugikortasun-eredu berri horren aldeko apustuari esker, garai batean ibilgailuak **aparkatzeko eta zirkulatzeko** erabiltzen ziren espazioak libre geratuko dira erabilera publikorako.

Hiriguneetako perimetroko hainbat puntutan aparkaleku kolektiboko espazioak sortuko dira. Erraz bertaratu ahal izango da haietara eta garraio publikoarekin eta bizikletentzako bidegorriekin lotuta egongo dira. Herrietako hiriguneetan **espazio berde berriak eta aisialdirako** eta herritarren artean **elkartzeko** espazioak sortuko dira.

Automobil-parke elektrikoa

Era berean, erronka da **automobil-parke pribatua** ahalik eta azkarren eraldatzea eta **ibilgailu elektrikoak sartzea**, eskualdeko herritar guztien eta erakundeen konpromisoa ikusarazteko.

HIRUGARRENA HIRIGINTZA ADIMENTSUA BULTZATZEA, NATURAN OINARRITUTAKO SOLUZIOEKIN

TOLOSALDEA SARETZEN-ek nabarmentzen du naturan oinarritutako soluzioak garrantzitsuak direla ingurunearekin adiskidetzeko prozesua gauzatze aldera; eta Natura hiriguneetara eta industrialdeen muintara eraman behar dela, klima-aldaketa globalaren prozesuak eskualdean sor ditzakeen zenbait eragini aurre egiteko. Gainera, soluzio horiek kutsadura atmosferikoa murrizteko ere balio dute, eta eskualdeko herritarren osasunean onura zuzenak sortzen dituzte.

Landare-errezela

N-1 autobidea eskualdeko ardatz nagusietako bat da. Bertatik milaka ibilgailu pribatu eta garraio astuneko ibilgailu igarotzen dira egunero. Bide horren existentziak Tolosaldeko eskualdearen errealitatea baldintzatzen du. Alde batetik, eskualderako aktibo bat da, gure inguruneako erakargarritasun-zentroetara azkar joatea eta gure egungo mugikortasun-eredua ahalbidetzen duelako. Aldi berean, ordea, azpiegitura handi horrek hirigintza-eragozpenak eta era guztietako eragin negatiboak (kutsadura, zarata) sortzen ditu, eta horiek guztiek gure garapena baldintzatzen dute eskualde gisa. Izan ere, gure ingurune naturalarekin eta gure ingurumenaren aldeko borondatearekin bizikidetzatza harmonikoa izatea galarazten du azpiegitura horrek.

TOLOSALDEA SARETZEN-ek kontraesan horri konponbidea ematea planteatzen du; hau da, autobide horrek konpontzen dituen premien eta naturari lotutako eskualdea izateko gure kultura-ereduaren arteko kontraesan hori konpontzea. Horretarako, interes biak bateratzea planteatzen du helburu gisa, eta azpiegitura naturalizatzeko ekintza ausartak martxan jartzea aurreikusten du, N-1 autobidea lurraldearen bizkarrezur eredugarri bihurtzeko.

Hau da helburua: N-1 errepidea hurrengo hamar urteetan berrantolatzea, autobiaaren berreraikitze naturalean hainbat jarduera

gauzatuz: zenbait zati naturarekin estaltzea, beste batzuk lurperatzea, korridore ekologikoak ezartzea eta hiri-egituraren orbanak ezabatzea.

Ibai-ibilguak berreskuratzea

Eskualdeko ibai-ibilguak hobetzeko arreta berezia jarriko da sistema hidrologikoen saneamenduan, eta hala, komunitatea bere ibaiarekin berriz ere kontaktuan jartzea ahalbidetuko da.

Alde horretatik, TOLOSALDEA SARETZEN-ek arreta berezia emango dio Oria ibaiari, ibaiaren naturalizaziorako eta hura balioan jartzeko plan berezi bat martxan jarritz, eskualdeko herritarrek ibaiarekin gero eta harreman handiagoa eta estuagoa izan dezaten.

Mikro-lorategien sare infinitua

Eskualdeko udalerriek artifizialdutako lurzorua naturalizatzeko konpromiso bat txertatuko dute pixkanaka-pixkanaka beren hirigintza-planetan eta arau subsidiarioetan. Horretarako, hiriko eta industrialdeetako paisaia birdefinituko dute, gaur egun ibilgailuak aparkatzeko erabiltzen diren kaleak, plazak eta espazioak naturalizatuz.

Prozesuaren ardatza inguruan zuhaitzak landatzea eta lorategi txikiak sortzea izango da, eskualdean egun gehien artifizialdutako inguruneen azalera berdea bikoiztu arte. Era berean, prozesu horretan lagungarri izango da enpresek beren inguratzailea, eta bereziki, eraikuntzen estaldura naturalizatzeko proposamenak egitea.

Hornidura berde berri hori mantentzeko, herritarrek benetan lagundu eta inplikatu egin beharko dute, iraunkorra izan dadin. Bai industrialdeetako enpresek, bai hiriguneetako bizilagunek beren inguruan egokituko diren lorategiak eta espazio naturalak kudeatzeko eta mantentzeko ardura hartu beharko dute.

Lurzoruen naturalizazioa

Lurzoruen inpermeabilizazioari aurre egiteko, ura ahalik eta ondoen aprobetxatzeko eta hiriko garbiketa-sistema hobetzeko, lurzoru gogorra aldatzeko prozesu bat irekiko da, eta horren ordez drainatze iraunkorreko neurri pasibo bat jarriko da.

LAUGARRENA
LANDA-EREMUAREN
ZEREGINA
INDARTZEA,
INGURUNE
NATURAL BATEN
ERAIKUNTZAN

TOLOSALDEA SARETZEN-en helburua da eskualde-eremu natural bat sortzea espazio berdeekin eta ongi zaindutako biodibertsitate maila altuarekin.

Eskualdean natura arnasteko, funtsezkoa da landa-eremuetako eragileek egiten duten jarduera. *Fraisoro Eskolaren, Fraisoro Ingurumen eta Nekazar Laborategiaren*, zein Azti-Tecnaliako eta Euskal Herriko Unibertsitateko ikerketa-zentroen lankidetzarekin, landa-ingurunearen balio naturala indartzeko jarduerak sendotuko dira, baserriei eta nekazaritza-ustiatzei honela lagunduz:

- Baliabideen erabilera aurreztuz eta arrazionalizatuz.
- Energia berriztagarriei bultzada emanez.
- Hondakinen eta isurketa kutsagarrien kopurua murriztuz.

5.2 LAN-ILDOAK

2 LAN-PROGRAMA SMART EKO-ALDEA NATURAN OINARRITUTAKO ESKUALDE BAT, HIRIKO ETA LANDAKO OREKA MANTENTZEN DUENAK

Energia-eraginkortasuna

EKO-ERAIKI Eraikuntzak eta barrutiak birgaitzeari bultzada ematea, sarbide eta energia-eraginkortasun parametroen arabera
TOLOSALDEA ZERO ENERGY Energia-kontsumo ia zero ko eraikin publikoak (Nearly Zero Energy Buildings - NZEB)
TOLOSARGI Argiztapena eta semaforoak sistema eraginkorragoekin ordeztzeko prozesua
SMART ENERGIA Adimentsua

Elektro-mugikortasuna

METRO ORIA Proiektu Intermodala METRO ORIA (Metro Elektriko Adimentsua Tolosaldea-Goierri)
TOLOSALDEA OINEZ Oinezkoentzako bideak eta bidegorriak egokitzea
IBILGAILU ELEKTRIKOAK Ibilgailu elektrikoak erostea eta erabiltzea sustatzeko politika
SMART MUGI Mugikortasun Adimentsua

Hondakinen kudeaketa

TOLOSALDEA ZERO WASTE Hondakinen kudeaketa eko-arduratsua

Naturan oinarritutako soluzioak

N-1 BERDEA N-1aren landare-errezela
ORIA, HIRIA Oria ibaia, espazio lehengoratua eta berriro balioztatua

Landa-munduko bideragarritasuna eta iraunkortasuna

MILA-BAT "1.000 baserri bateratu, 1.000 enpresa iraunkor"

5.2.1 ENERGIA-ERAGINKORTASUNA

1. Programa EKO-ERAIKI ERAIKUNTZAK ETA DISTRITUAK IRISGARRITASUN ETA ENERGIA- ERAGINKORTASUN PARAMETROEN ARABERA BIRGAITZEA ETA BULTZATZEA

Helburua da energia-aurrezkian funtsezko hobekuntzak lortzea auzoetan, hiriguneetan eta industrialdeetan. Horretarako, hainbat esku-hartze egingo dira; alde batetik, irisgarritasun eta erosotasun mailan pertsonen bizi-kalitatea hobetuko duten gizarte-hobekuntzak egingo dira; eta bestetik, eraikinen itxierak, leihoak eta estaldurak aldatuko dira, hainbeste kostatzen den beroaren zati handi batek hortik ihes egiten baitu.

Horretarako, beren artean osagarriak diren bost ardatzetan egin behar da lan.

- Pre
miak identifikatzea eta pertsonak
kontzientziatzea. Eskualdeko energiaren
errealitatea sakonago ezagutzea, eta bereziki,
etxebizitzaren arkitektura-baldintzekin eta
familien baldintza sozialekin lotutako energia-
pobreziako kasuen errealitatea ezagutzea.
- Eusko Jaurlaritzak, Energiaren Euskal
Erakundearen bidez, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta Europar Batasunak
herritarrentzat eskuragarri jartzen dituzten
etxebizitzak birgaitzen laguntzeko programa
publikoak ahalik eta gehien aprobetxatzea.
- Eraikinetan energia-auditoriak egitea eta
neurketa horiek sustatzea, gizarte-, energia-
eta ekonomia-jarduera eraginkorrak
identifikatzeko.
- Birgaitzeko proiektu pilotuak bultzatzea,
etorkizuneko ekimenei begira eredugarri eta
motibagarri izan daitezen. Proiektu pilotuak,
esku hartzen duten eragileen lankidetzarekin
eta parte-hartzearekin egiten direnak.
- Finantzaketa publiko eta pribatuko
mekanismoak ahalbidetzea, hirigintza arloko
esku-hartzeak egitea sustatzeko eta
azkartzeko. Horietan, honako hauek jardun

beharko lukete lankidetzan: tartean diren eragileek (bizilagun-komunitateak, poligonoetako enpresak, etab.), gizarte eta energia izaerako elkarteek, administrazio publikoek, energia-zerbitzuetako enpresek eta finantza-erakundeek.

2 Programa
TOLOSALDEA ZERO
ENERGY
IA ZERO ENERGIA-
KONTSUMOKO
ERAIKIN PUBLIKOAK
(NEARLY ZERO
ENERGY BUILDINGS
- NZEB)

Helburua da Administrazio Publikoek energia-eraginkortasunarekin konpromisoa hartzea eta eredia ematea, eta konpromisoazko kultura hori ezarrita, erabakitasunez aurrera egitea, eskualdeko eraikin publikoak (ikastetxeak, kiroldegia, osasun-zentroak, udal bulegoak, kultur-zentroak, eta abarrak) energia-kontsumo ia zeroa eraikinak (ingelesezko sigletan NZEB) izatea lortu arte.

Logikoa denez, lehentasuna eraikin berriek izango dute, baina ez dira ahaztu behar dagoeneko eraikitako eraikinek aurrezteko eta energia sortzeko dituzten aukerak.

Lan-ardatz nagusiak honako hauek izango dira:

- Konpromisoa hartzea eraikin publiko berriak energia-eraginkortasunaren maila goreneko estandarrak ahalik eta gehien errespetatuz eraikitzeko.
- Energia-auditoria eta energia-jarduerako planak egitea, eskualdean dauden eraikin publiko guztietan. Plan horien helburua da identifikatzea lortutako energia-aurrezkiaren bidez zer nolako esku-hartzeak edota inbertsioak finantzatu edo *ia-finantzatu* daitezkeen. Estalkiak aldatzea; argiztapen-sistemak beste sistema eraginkorrago batzuekin ordeztzea; berogailuaren eta ur beroaren sistemak aldatzea; teilatuak edo beste hainbat azalera aprobetxatzea energia berriztagarria sortzeko instalazioak jartzeko; energia kontrolatzeko sistema adimentsuak txertatzea; horiek dira, besteak beste, kontuan izan beharreko zenbait neurri.
- Energia-zerbitzuetako enpresa publikoekin eta pribatuekin lan egitea, eraikin publikoetan hobekuntzak eta inbertsio partekatuak identifikatzeko eta planteatzeko.
- Eskualdeko eraikin adierazgarri batean proiektu pilotu bat ezartzeko urratsak ematea,

ondorengo jardueretarako erreferentzia eta adibide izan dadin.

- Araudia eta erregulazioa ezartzeko aurrerapausoak ematea, sustapen pribatuek NZEB edo *passive houses* izateko bidean aurrerapausoak eman ditzaten sustatzeko.

**3 Programa
TOLOSARGI
ARGITERIA ETA
SEMAFOROAK
ORDEZTEA ETA
SISTEMA
ERAGINKORRAGOAK
EZARTZEA**

Lan-ildo horren helburua da eskualdeko argiztapen publiko guztia eraginkorra izatea, energia aurreztuz eta argiztapen-baldintzak hobetuz. Aurrezteaz gain, beste funtsezko zenbait elementu izan behar dira kontuan, eta horien artean erosotasuna eta segurtasuna dira nagusi.

Horretarako, funtsezkoa da energia-zerbitzuen enpresekin egiten den lana, inbertsioak eta herritarren lankidetzaren errazteko. Hauek dira lan-ardatz nagusiak:

- Argiztapen-teknologia aurreratuenak eta eraginkorrenak txertatzea argiztapen edota seinaleztapen publikoko ezarpen berrietan.
- Argiztapen publikoko auditoriak egitea, hobekuntza-jarduerak eta horiek finantzatzeko sistemak identifikatuz.



4 Programa **SMART ENERGIA** ENERGIA ADIMENTSUA



Helburua da teknologiaren aurrerapenak ahalik eta gehien aprobetxatzea. Bereziki elektronika eta IKTak, eskualdeko energia-kontsumoa optimizatzeko, batez ere energia-kontsumo publikoa. Teknologia aprobetxatzeaz gain, energia adimentsuak lagundu egiten dio jendeari benetan behar duen energia soilik kontsumitzen, eta horretarako beharrezkoa da herritarrek mentalitatez eta ohiturez aldatzea.

Eraikin eta espazio publikoetan energia-kontrolerako eta -kudeaketarako sistema adimentsuak ezarri behar dira, eta argiztapena eta tenperatura une oro egokitu behar dira pertsonen egiazko premietara. Horrela, gehiago aurreztuko da eta, aldi berean, pertsonen bizikaltatea hobetuko da.

Energia-sistemetan adimena txertatzea eta gainerako esku-hartze energetikoak paraleloan edo aldi berean egingo dira.

5.2.2 ELEKTRO-MUGIKORTASUNA



5 Programa **METRO ORIA** METRO ORIA (METRO ELEKTRIKO ADIMENTSUA TOLOSALDEA- GOIERRI) PROIEKTU INTERMODALA



Helburua da eskualdea zeharkatzen duen eta kanpoaldearekin komunikatzen duen egungo trenbide-azpiegitura eskualdeko jendea garraiatzeko ardatz bihurtzea, errepidea alde batera utzita. Horretarako, trenbide-zerbitzua hobetzeko baldintzak (geldialdiak eta maiztasuna) sortu beharko dira ibilgailu pribatuarekin lehiatzeko, bereziki eskualde barruko eta Goierri, Tolosaldea eta Donostialdea eskualdeen arteko desplazamenduetan, horietan sortzen baita ibilgailu pribatuen trafikorik handiena.

Horretarako, honako hau beharko da:

- Lehenik eta behin, eskualdeko eta auzoko eskualdeetako pertsonen artean proiektuaren aldeko gogoia piztea. Gizartearen atxikimendu horrek esku hartzen duten Administrazio publiko guztiak batzeko balio behar du. Lehenik udalerriak, baina baita Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta Estatuko Administrazio Orokorra ere, azken horrek ematen baitu, ADIF eta RENFEren bidez, gaur egungo trenbide-zerbitzua.
- Bigarrenik, egin beharreko azterketak egin beharko dira trenbide-proiektuaren bideragarritasun tekniko-ekonomikoa bermatzeko eta azpiegituraren, ekipamendu mugikorraren, geltokien eta abarren baldintzetan egin beharreko hobekuntzak ezagutzeko.
- Hirugarrenik, garraio publikoko sistema osoa diseinatu behar da berriro, trenbidearen eta autobus-lineen eta ibilgailu elektrikoen lantzaderen arteko intermodalitatea erraztuz. Azken horien bidez garraioaren zerbitzu publikoa zabalduko da eta adar txikietan banatuko da, hiriguneetara eta enpresa-poligono nagusietara iristeko.

- Laugarrenik, eskualdean fabrikatzen diren autobus elektrikoek bertan zirkulatzea lortu behar da, garraio-zerbitzua emanez eta TOLOSALDEAN SARETZENek Tolosaldean bultzatuko duen elektro-mugikortasunaren interesgunearentzako erakusleaho eta laborategi praktiko eta erreal izanez.
- Azkenik, borondateak batu beharko dira proiektua martxan jartzeko premiazko finantzaketa lortzeko eta egiaz abian jarriko dela bermatzeko. Hala, maila guztietako Administrazio Publikoei egin beharko zaie eskaera, baita ekimen pribatuari ere.

6 Programa
TOLOSALDEA OINEZ
OINEZKOENTZAKO
BIDEAK ETA
BIDEGORRIAK
JARTZEA

Helburua da ibilgailu gutxiagok zirkulatzea eta zirkulatzen dutenak, bereziki hiriguneetan, elektrikoak izatea, ingurumen-inpaktua ahalik eta gehien murrizteko eta pertsonen osasuna hobetzeko.

Lan-ardatzak honako hauek izango dira:

- Udalerrien konpromisoa lortzea herriko ibilgailu publikoen flota gehienbat edo erabat elektrikoa izan dadin.
- Udal-araudian aldaketak aurreratzea eta azkartzea, ibilgailu ez kutsagarrietan zirkulatzen dutenak saritzeko. Eremu murriztuak, aparkaleku erreserbatuko eremuak, bide publikoan aparkatzeko baldintza hobeak edo ibilgailuen udal-zergetan pizgarriak sortzea, besteak beste.

7 Programa
**IBILGAILU
ELEKTRIKOAK**
IBILGAILU
ELEKTRIKOAK
EROSTEA ETA
ERABILTZEA
SUSTATZEKO
POLITIKAK

Helburua da ibilgailuak eskualdeko hirigune nagusietatik ateratzea, espazio publikoa oinez edo bizikletaz doazenek goza dezaten.

Aurrera egiteko ardatzak:

- Biztanleak sentsibilizatzea hiriko espazio libreaz gozatzeko duten eskubidearen gainean, espazio hori ibilgailuek inbaditu gabe, herritarren espazioa konprometitzen eta kutsatzen baitute eta pertsonen osasuna kaltetzen. Ibilgailurik gabeko egunen kanpainak biderkatzea, hirian bizikletaren erabilera sustatzea eta bizikletaz ibiltzeko tailerrak egitea, edo ibilgailurik gabeko herriko jaiak egitea, horra martxan jarri beharreko zenbait ekimenen adibideak.
- Kaleak oinezkoentzako egokitzeko ekimenak ahalik eta gehien indartzea, bereziki merkataritzarako ahalmen gehien dutenak.
- Hiriguneak bizikletan ibiltzeko prestatzea, eta motorizatutako ibilgailuaren aldean bizikletaren erabilera sustatzea. Bidegorriak zabaltzea, ibilgailuei espazioa irabaziz eta bizikletak aparkatzeko tokiak erraztea.



8 Programa SMART MUGI MUGIKORTASUN ADIMENTSUA



Helburua da elektronikaren eta IKTen aurrerapenak ahalik eta gehien aprobetxatzea, **garraioa optimizatzeko eta desplazamenduak ahalik eta onenak izatea eta bitartekorik iraunkorrenetan egitea lortzeko**, kasu bakoitzean. Mugikortasun adimentsua ez du soilik teknologiak bideratzen. Aitzitik, herritar kontzientziatuak eta ko-arduratsuak ere bideratzen du, inpaktuak ulertzen baititu eta mugikortasun iraunkorreko eredu batekiko konpromisoa hartzen baitu.

Ondo erabilitako teknologiak aukerak zabaltzen ditu, eta Tolosaldeak aukera horiek aprobetxatu behar ditu bere mugikortasun iraunkorreko ereduari bultzada emateko.

Kasu horretan, hauek lirateke lehentasunak: lehenengo etapa batean, desplazamenduak denbora errealean monitorizatzeko sistema bat izatea; eta bigarren etapan, erabiltzaileei informazioa ematea garraiorako erabaki hobeak har ditzaten, ibilgailuak partekatzea barne, eta azkenik, garraio-eskaera kudeatzeko ekintzak erabaki ahal izatea, pizgarrien (sariak/isunak), bidesarien, bide publikoan aparkatzeko kostuen, eta abarren bidez.

5.2.3 HONDAKINEN KUDEAKETA



9. Programa TOLOSALDEA ZERO WASTE HONDAKINEN KUDEAKETA EKO- ARDURATSUA



Helburua da hondakinak prebenitzeko eta ahalik eta gutxien sortzeko lan egitea, eta ezinbestean sortzen ditugunak zabortegian amaitu dezaten saihestea. *“Tolosaldea Zero Waste”*, funtsean, mentalitate-aldaketa bat da. Kontsumo-eredu lineal batetik, eredu zirkular batera pasatzea. Eredu linealean, erosten, kontsumitzen eta soberan geratzen zaiguna bota egiten dugu, eta zirkularrean, aldiz, osasunarekiko eta ingurumenarekiko modu arduratsuan kontsumitzen dugu. Hori dela eta, erosten duguna ahalik eta gehien aprobetxatzen dugu, ahal dugun guztietan berrerabiltzen dugu eta produkzioan erabilitako material guztiak birziklatzen direla jakiteko kezka hartzen dugu (bilgarriak edo lehengaiak ondasun iraunkorretan). Azkenik, botatzeko materia organikoarekin bermatzen dugu naturara bueltatuko dela, bai ongarri natural gisa baliatuz, bai energia gisa, sortutako biogasa ustiatuz.

- Sentsibilizatzea, kontsumo arduratsuagoko eredu baterantz aurrerapausoak emateko; hau da, produktuak erosteko orduan, produktu horrek sortzen dituen gizarte- eta ingurumen-inpaktuak kontuan izatea.
- Saltokien eta pertsonen elkar-lana bultzatzea, produktuen premiagabeko ontziak murrizteko, baita Km 0 elikaduraren tokiko produktuak sustatzeko ere.
- Gaikako bilketaren ereduetan aurrerapausoak ematea. Tolosaldeak Euskadiko batz bestekoa baino askoz ere gehiago birziklatzen du, eta birziklatze-ehunekoetan urratsak egiteko, oraindik ere anbizio gehiago izan behar du bere kudeaketa-prozesuetan, pizgarriak eta sariak emanaz gehien birziklatzen dutenei.
- Teknologia txertatzea berrerabilera eta birziklatzea bultzatzeko. Sistema propio bat diseinatzea, prozesuen kudeaketa pertsonalizatuago eta bereiziago bat errazteko.

5.2.4 NATURAN OINARRITUTAKO SOLUZIOAK

10. Programa N-1 BERDEA N-1 ERREPIDEAREN LANDARE- ERREZELA

Helburua da N-1 autobideak begien bistara eta ingurumenean sortzen duen inpaktua ahalik eta gehien arintzea, azpiegitura hori paisaia gero eta gehiago naturalizatuz eta txertatuz. Errepide hori dagoeneko eraikita eta jardunean dagoenez, proiektuak oso kontuan izan beharko ditu bai bidearen zein zeharkatzen duen ingurunearen gaur egungo ezaugarriak.

Zenbait kasutan, bereziki errepideak urbanizatutako eremuak zeharkatzen dituen kasuetan, errepidea lurperatzea litzateke aukerarik egokiena, eta horrela, herritarrek ibilgailuen zaratatik isolatuko lirateke, eta aldi berean, espazio berri bat emango litzaieke, zuhaitzez betetako parke lineal modura, aisialdirako espazio publiko modura, eta bizikletentzako loturekin eta zirkuituekin, besteak beste. Inpaktu gutxiagoko beste toki isolatuagoetan, berriz, lerroan jarritako zuhaitziak eta landare-errezela gehitu ahal izango lirateke, errepidea inguruko paisaia naturalarekin errazago integratzeko.

Ekimena garatzeko ardatz nagusiak honako hauek izango lirateke:

- Lehenik eta behin, gizarteak proiektua ahalik eta gehien babestea lortu behar da, eta horretarako, herritarrek proiektua ikusi eta imajinatu egin beharko lukete, infografien eta errealitate birtualaren tankerako beste tresna batzuen bidez. Atal honetan, hauek lirateke kontuan izan beharreko zenbait tresna: mugikortasun iraunkorreko azoka bat, hiria hobetzeko lantegiak herritarrentzat eta eztabaida publikoak eskualdeko hirigintza berriaren gainean.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektua babes dezan lortzea. Diputazioak du errepideen eremuko eskumena, eta, beraz, erakunde horrek dauka proiektua benetan gauzatu ahal izateko giltza. Era berean, Eusko Jaurlaritzaren laguntza ere kontuan izan beharko da, plangintzan

eskumenak baititu, eta Europako erakundeek eman dezaketen laguntza ere bilatu beharko da finantzaketarako.

- N-1erako proiektu integral bat definitzea. Alde horretatik, aukera bat litzateke nazioarteko ideien lehiaketa bat antolatzea, hirigile eta arkitekto onenak parte hartzera gonbidatuz. Lehiaketak aukera emango luke aurkeztutako proiektuen erakusketak egiteko udalerrietan, eta proiektuak beharko lukeen gizarte-babesa sortzen lagunduko luke.
- Beharrezko azterketak egitea proiektuaren bideragarritasun tekniko-ekonomikoa bermatzeko. Proiektua hainbat fasetan egingo litzateke, egingarritasunaren eta inpaktuen arabera.

11 Programa
ORIA, HIRIA
ORIA IBAIA
LEHENGORATUTAK
O ETA BALIOA
HANDITUTAKO
ESPAZIO GISA

Helburua da Oria ibaia azkeneko urteetan lortutako hobekuntzak aprobetxatzea, ibaia naturalizatzeko eta balioan jartzeko asmo handiko plan bat martxan jartzeko, eta, modu horretara, eskualdeko herritarrek beren ibaiarekin harreman gero handiagoa izan dezaten bultzatzeko. Uraren kalitatea etengabe hobetzearekin batera, ibaia toki pribilegiatu bihurtu behar dugu, paseorako, naturarekin harremanetan jartzeko eta uretako aisialdi-jarduerak sustatzeko (eskualdeko zenbait udalerrik dagoeneko egiten dituzte horrelakoak: arrauna, piraguismoa, etab.). Bestetik, proiektuaren helburua da Oria ibaiak eskualdearen bizkarrezur izateko duen berezko izaera berreskuratzea.

Ekimena garatzeko, funtsezkoa da Oria ibaiak zeharkatzen dituen udalerrietako hirigintza-planetan ekimena txertatzea, eta herritarrek, elkarteak eta enpresak ibaia lehengoratzeko jardueretan mobilizatzeko gai izatea, hala nola ibaiertzak garbitzeko eta egokitzeko lanetan, zuhaitzak eta bertako landaredia landatzeko ekimenetan eta abar.

5.2.5 LANDA-MUNDUKO BIDERAGARRITASUNA ETA IRAUNKORTASUNA

12. Programa MILA-BAT “1.000 BASERRI BATERATU, 1.000 ENPRESA IRAUNKOR”

Ekimenaren helburua da eskualdeko **nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak eta basogintzari lotutakoak modernizatzeko eta profesionalizatzeko prozesuan** sakontzea, sektorea eta sektoreko enpresa- eta lan-baldintzak beste jardura batzuetako baldintzekin homologatzeko, bai industria-sektorean, bai zerbitzuen sektorean. Azken helburua da pertsonak baserri-eremuan finkatzea, landa-eremuko enpresa-jardura sustatuz; izan ere, jardura hori, elikagai eta baliabide naturalen iturri garrantzitsua izateaz gain, lurraldearen kudeaketa iraunkorrari eusteko bidea baita.

Ekimen horren gakoa da gaitasunak bateratzea, eskualdeko nekazaritza-ustiategi txikiek berezkoak dituzten arazoak konpontzeko. Helburua da lehen sektore honetan dihardutenek egunerokoan dituzten erronkei hobeto erantzutea, haien lehiakortasuna eta iraunkortasuna hobetzeko, produktuak hobetze aldera, balio erantsi handiagoko produktu berriak sortzeko, eta oso bereziki, produktu horiek merkaturatzeko.

Praktikan, hauxe da helburua: eskualdeko eta eskualdetik kanpoko nekazaritzako ustiategiekin eta eragile nagusiekin osatutako kooperatiben talde txiki bat osatzeko baldintzak sortzea. Eragile horiek, besteak beste, *Fraisoro Eskola*, eta hainbat ikerketa- eta teknologia-zentro dira, hala nola Azti-Tecnalia, Neiker edo Euskal Herriko Unibertsitatea bera.

Kooperatiba horiek balio erantsi altuko zerbitzuak hornitzeko ardura izango dute (udalen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren babesarekin), berrikuntza teknologikoko eta ez teknologikoko prozesuekin eta nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuak merkaturatzeko jarduerarekin lotura duten

zerbitzuak. Era berean, kudeaketa integratuago bat emango dute, eta aukerak aprobetxatuko dituzte hainbat eremutan, hala nola produktuen industrializazioan, energia berriztagarrien ustiapenean (bereziki biomasan) edo turismo iraunkorrean.

LurLan (www.lurlan.org) kooperatibak dagoeneko ibilbide bat egin du eskualdean, eta hainbat ekoizle bildu ditu kalitatezko elikadura-produktuak elkarrekin merkaturatzeko. Alde horretatik, beraz, jardunbide egokien eredu da.

6 “ELKARLANEAN: ‘KO’ KOMUNITATEA LAN-PROGRAMA. TOLOSALDEA, “KO” ESKUALDEA: KO-LABORATIBOA, KO-EKINTZAILEA, (E)KO-ARDURATSUA ETA KO-NEKTATUA

6.1 HELBURU ESTRATEGIKOAK

LEHENA KOLABORAZIO ETA KO-ERANTZUKIZUN KOLEKTIBOKO BALIOETAN HEZTEA

TOLOSALDEA GARATZEN-ek eskualde bat eraiki eta asmatu du kooperazioa oinarri harturik. Helburua da gure gauzak egiteko moduaren kultura-oinarriak eraldatzea eta balio berriak zabaltzea. Horretarako, gure komunitatean oraindik sortu berriak diren balio-multzo bat unibertsalizatzen egin nahi dugu aurrera. Hauek dira balio horietako batzuk: *eko-erantzukizuna* naturarekin eta ingurunearekin, *ko-laborazioa* eskualdea eraikitzeke tresna gisa eta *ko-npromiso* kolektiboa komunitateko kide guztiekin.

Gure estrategia gauzatzeko, funtsean, hezkuntzan inbertitu behar da maila guztietan (formalean eta ez-formalean), honako hauek egiten lagunduko diguten tresnak eskuratu ahal izateko:

KO-SORTZEA

Etorkizuna asmatzea eta modu kolektiboan bideak esploratzea enpresa- edo gizarte-proiektuetan.

KO-PARTE-HARTZEA

Gure eskualdean egiten diren erronketan eta proiektuetan parte hartzera animatzea.

KO-ERAIKITZEA

Proiektuak abiaraztea eta jakin-min eta ekimen berriei tokia egitea, gure eskualdeari balioa eransteke.

KO-PARTEKATZEA

Ematea jasotzeko. Inplikatzeko. Elkarri eragitea.

BIGARRENA INTERNETERAKO ESKUBIDEA BERMATZEA

TOLOSALDEA SARETZEN-ek Interneterako sarbidea izateko eskubidea bermatu nahi du, Nazio Batuek adierazitakoaren ildo berean, *“babes, askatasun eta adierazpen goreneko giza eskubide”* gisa. Hala, **pertsona eta enpresa guztiei sarbidea bermatu** nahi die eskualdean bizi edo kokatzen diren tokian sare **ireki** (non edozein konektatu daitekeen), **aske** (inork eskuratu ezin duen ondasun publiko gisa) eta **neutral** (bertan zirkulatzen duen edukiari dagokionez) batera sarbidea izango dutela.

Tolosaldeak informazioaren teknologiak ahalik eta gehien erabiltzea lortu nahi du, lehenik eta behin, herritar konprometituen parte-hartze aktiboa errazteko eta herritar horiek udalarekin modu telematikoan jardun ahal izateko, webguneen eta aplikazioen bidez, informazio gardenarekin eta eskuragarriarekin, eragiten dieten gaien inguruan.

Bigarrenik, Tolosaldeko txoko guztiak digitalizatzeko, eskualdeko nekazaritza-ustiatzearen lehiakortasuna indartzen lagunduko du, eta lankidetzarako eta produktua merkaturatzeko aukerak erraztuko ditu.

HIRUGARRENA
ESKUALDEZ
GAINDIKO
KOOPERAZIO
EREDUARI
JARRAITUZ LAN
EGITEA

TOLOSALDEA SARETZEN-ek bere inguru geografikoarekin lankidetzat-loturak eraikitzearen aldeko apustua egiten du, partekatutako lidergoen eta azpiegituren benetako konurbazio bat eratzen joateko. Eskualde handi bat izango da, Gipuzkoarentzat eta Euskal Herri osoarentzat erreferentzia, lidergoak eta apustu bateratuak eraikitzeko orduan.

Helburua da Oria ibaiaren ardatzean, Goierritik Adunara arteko eremu horretan, bizi diren 100.000 pertsonak komunitate handi batean biltzea, eta partekatutako proiektu eta ilusioen bidez komunitate hori hezurmamitzea. Azken finean, enpresa-mundua, ingurumena, kultura, turismoa etab. garatzeko hainbat prozesutan esku hartu nahi du eskualdeak, eta prozesu horien indarra eta hauspoa sendotu nahi du estrategia horrek.

LAUGARRENA
ZAINTZEN
EKONOMIAREN
BALIOA
IKUSARAZTEA

Zaintzen Ekonomiak gure gizartearen egungo ekoizpen-ereduaren eta harreman ekonomikoen ikuskera aldatu nahi du, gure gizarteari funtzionatzen eta sistema ekonomikoari jarduten jarraitzen laguntzen dioten jarduera horiek guztiak txertatuz (batzuk ordainduak dira, beste asko ordaindu gabeak edo modu oso prekarioan ordainduak). Alde horretatik, zaintzen ekonomiari esker, gizarteek beren kideen zaintza antolatzeko modua eta gizarte horien oinarritzko sistema ekonomikoaren funtzionamendua uztartzen dira.

TOLOSALDEA SARETZEN-ek errealitate hori aintzat hartzearen alde egiten du, eta gure herri eta udalerrietako arduradunei lagundu nahi die beren erabakietan ildo horretako elementuak txertatzen.

6.2 LAN-ILDOAK

3 ELKARLANEAN: “KO” ESKUALDEA LAN-PROGRAMA TOLOSALDEA KO-LABORATIBOA, KO-EKINTZAILEA, (E)KO- ARDURATSUA ETA KO-NEKTATUA

Eskualde hezitzailea HEZI TA HAZI Eskualde hezitzailea
Eskualde euskalduna EUSKARALDEA Tolosaldea, Euskaraldea
Eskualde digitala TOLOSALDEA WI-FREE Landa-eremuaren konektibitatea
Eskualde konurbazioa ESKUALDEA + Konurbazioan lan egiten; eskualdez gaindiko ekimenak
Zaintzen eskualdea ZAINTZA Zaintzen eskualdea

6.2.1 ESKUALDE HEZITZAILEA

1. Programa HEZI TA HAZI ESKUALDE HEZITZAILEA

Eskualdea harremanetarako espazio bat da, eta hortaz, baita ikasteko espazio bat ere; hau da, kontzeptua garatuz, eskualdea hezkuntza-eragile bat da. Bokazio hezitzaile horrek laguntzen digu premiak identifikatzen, jarduera-proposamenak diseinatzen eta horien inpaktua ebaluatzen. Hezkuntza-bokazio horrek ahalbidetzen du, hain zuzen, pertsonak ardatz dituen politikaren helburu nagusia herritarren prestakuntza izatea, parte-hartze demokratikoa bultzatzea, herritarrak beraiek izan daitezen beren lehentasunak zehazten dituztenak, beren jarduerak proposatzen dituztenak eta beren ebaluazioan laguntzen dutenak.

TOLOSALDEA SARETZEN-ek “*Eskualde hezitzailea*” ekimena jarri nahi du martxan, eta herritarrak sentsibilizatzeko, prestatzeko eta hainbat **balio unibertsalizatzeko** ekintzak egin nahi ditu. Hauek dira sustatu nahi dituen balioetako batzuk: eko-erantzukizuna naturarekin eta ingurunearekin, ko-laborazioa eta ko-operazioa eskualdea eraikitzeko eta genero-berdintasuna lortzeko tresna gisa, edo konpromiso kolektiboa komunitateko kide guztiekin. Hauek dira “Tolosaldea, Eskualde hezitzailea” ekimenaren helburu estrategikoak:

1. Kolaborazio- eta kooperatibismo-balioak indartzea.
2. Eko-erantzukizuna indartzea
3. Ekintzaile izatearen balioa indartzea
4. Euskara komunikazio-hizkuntza gisa erabiltzeko ohitura indartzea

“Eskualde hezitzailea” agendaren ekintza guztien asmoa heztea da, herritarren premiak kontuan harturik. Esku-hartze eta ekintza horiek plangintza bateratuan eta eskualdeko hainbat udalerrik garatutako koordinazioan oinarritzen dira, eta zenbait lan-ildo osagarriren arabera antolatzen dira.

“Eskualde hezitzailea” ekimenak lau talde hartzaile handi hauek hartzen ditu kontuan:

- **HERRITARRAK:** jardueran eskualdeko herritarrek parte hartzen dute, eta jarduera nolakoa den esku hartzen duten pertsonen adina edo bestelako ezaugarriak era batekoak edo bestekoak izan daitezke. Izen-ematea banakakoa da.
- **KOLEKTIBOAK:** jardueran kolektibo bateko pertsona-talde batek parte hartzen du. Izen-ematea taldeka egiten da, eta kolektiboak berak egiten du (elkarteek, kultura-taldeek, gizarte-taldeek).
- **ESKOLA-TALDEAK:** jardueran talde/ikasgela edo talde/maila batek parte hartzen du. Izen-ematea ikastetxeak egiten du. Taldean parte hartuz gero, irakasleek ere parte hartuko dute.
- **ENPRESAK:** jarduera horretan enpresek, kolektibo gisa, edo gizabanakoek parte hartzen dute, enpresen kudeatzaile edo teknikari gisa.

Ingurumen- eta ingurune naturalaren balorizazio-hezkuntza

Eko-erantzukizuneko balioak eraikitzeko jarduerak. Esku-hartze horien gaiak honako hauek dira: bizi garen ingurune naturala, ingurune horren bizitzari edota garapenari eragiten dioten kanpoko baldintzak, baliabide naturalak, landaredia, fauna, gizakiak eta beren arteko harremanak, ingurumen-kudeaketa eta -iraunkortasuna.

Eskualde kolaboratiboa eraikitzeko hezkuntza

Gizarte-ehuna eraikitzeko jarduerak, beren enpresa, gizarte eta ingurumen proposamenak kooperazioaren eta kolaborazioaren arabera antolatzen dituenak. Ekimen horien artean, aintzat hartzen da proiektua modu kolektiboan eraikitzeak, lankidetzazko-prozesuak eratzeak

tresnak izateak eta aliatuak bilatzeko tresnak izateak duen balioa.

Ekintzaile izateko hezkuntza

Hezkuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak gizarte-, enpresa- edo kultura-izaerako ekimenak gauzatzearen balio positiboak indartzeko. Ekimenak aktibatzearen gizarte-onurak hedatzea, ekintzaileen ekimen bereziak aintzatestea, ekintzailetza feminizatua bultzatzea.

Herritarrek parte hartzeko hezkuntza

Komunitateko erabakietan herritarrek parte hartzeko eta inplikatzeko modu berriak garatzea, ehun asoziatiboa berrindartzea, komunitateak gai publikoetan aldaketa-eragile gisa duen erantzunkidetasuna sustatzea, eta eskualdean parte hartzeko mekanismoak hobetzea eta sakontzea helburu duten jarduerak.

Bizikidetzarako hezkuntza

Sentsibilizazio-, interakzio-, kooperazio- eta ikasketa-jarduerak, dibertsitatearen kulturaren oinarrituak, non ezberdintasuna balio bat den eta errespetutik eta elkarrekikotasunekin aintzatesten den, eta zeina giza eskubideek bermatzen baitute.

Hezkuntza gaitasun pertsonaletan

Gaitasunak eta trebeziak lantzeko jarduerak, portaera egokiak garatzeko, bai eremu pertsonalean eta gizarte harremanen eremuan, zein eremu laboralean eta profesionalean ere.

Eskualdea ezagutzeko hezkuntza

Gure herriak eta auzoak ondare gisa ulertzeko kontzeptuaren gaineko jarduerak, gure sustraiak ezagutzeko ideiarekin lotutako ikuspegi batetik, gaurkotasunarekin eta etorkizuneko aukerekin estuago lotzen den ikuspegi bateraino (garai historiko zehatz bateko ezaugarriak eta horrek egungo eskualdean duen eragina; eskualdearen ikasketa praktikoa –bere baliabideak eta zerbitzuak–; ohiturak hartzea; eta bizikidetzarako jarrerak).

6.2.2 ESKUALDE EUSKALDUNA

2. Programa EUSKARALDEA TOLOSALDEA, EUSKARALDEA

Euskara garatzea eskualdeko komunikazio- hizkuntza gisa

Pertsonen artean, enpresan eta, oro har, gizartean euskararen erabilera normalizatzeko jarduerak eta ekintzak. Tolosaldeko eskualdeak ondare materiagabe bakarra du. Izan ere, euskararen ezagutza-adierazle altuenetakoak ditu Euskal Herrian. Gainera, herritar gehienek euskaraz azaldu eta bizi nahi dute beren bizitza pertsonaleko eta harremanetako alderdi guztietan. Eskualdeak hainbat hezkuntza-tresna antolatu ditu, enpresan, eskolan eta kalean adierazpen euskaldun horri bidea irekitzeko.

6.2.3 ESKUALDE DIGITALA



3. Programa TOLOSALDEA WI-FREE LANDA- KONEKTIBITATEA



Teknologia berriek, eta bereziki IKTek industria eraldatu duten moduan, informazioaren eta komunikazioaren teknologia hauek ahalmen handia dute nekazaritza- eta abeltzaintza-ekoizpenean iraultza sortzeko eta landa-eremuan bizi-kalitatea eta zerbitzuak hobetzeko. Horretarako, baserri guztiek kalitatezko **konektibitate-azpiegitura** bat izan behar dute.

Gipuzkoako Foru Aldundiak *LandaGipuzkoa+* proiektua sustatu zuen, urrats funtsezkoa Gipuzkoako landa-eremuko herri txikienetara Internetarako konexioa errazteko eta **hiriaren eta landa-eremuaren arteko eten digitala ezabatze**ko. Konektibitatea izatea urrats erraldoia da, eta saren egoteak ateak irekiko dizkie pertsonentzako zerbitzu potentzial berriei, produktibitatea hobetzeko eta nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiatzei aukera berriak zabaltzeko.

6.2.4 ESKUALDE KOLABORATZAILEA

4. Programa ESKUALDE + KONURBAZIOAN LAN EGITEA. ESKUALDEZ GAINDIKO EKIMENAK

Eskualdez gairik lurralde-kooperazioko proiektuak eratzea. Helburua lurralde-garapenerako proiektuak suspertzea, antolatzea eta finantzatzea da (enpresa, gizarte, kultura edo ingurumen arloan), eta inguruko eskualdeetako entitateak eta kolektiboak proiektu horietara biltzea. Bereziki, erakunde-arte proposamen bateratuak egin nahi dira, Goierri eta Tolosaldea eratzen duten konurbazio osoari zerbitzua emateko eta bertan eragiteko.

Elkarlanean aritzea eta lankidetzan lan egiten ikastea, irismen handiko proiektuak abiarazteko; besteak beste, honako hauek:

- METRO ORIA Proiektua (Metro Elektriko Adimentsua Tolosaldea-Goierri)
- elektro mugikortasunerako industria-berrikuntzaren interesgune bat sortzea, enpresa, teknologia eta unibertsitate-jarduerarekin;
- hiri-antolara partekatua; N-1 errepidearen naturalizazio-prozesua;
- Oria ibaiaren zentraltasuna berreskuratzea, lurralde- eta bizitza-garapeneraren eredu;
- kultura-politika bateratua eta kultura zabaltzeko jardueren agenda partekatua;
- kirol-hiri handi bat eratzea, hiri handietan aisialdirako, gizarte-ekintzetarako eta kirolerako izan ohi diren instalazioekin;

Beste hainbat aukeraren artean, ibar berdina eta bizitza-mota berdina garatzeko eta modu bateratuan partekatze aukera gisa.

6.2.5 ZAINTZEN ESKUALDEA

5. Programa ZAINZA ZAINTZEN ESKUALDEA

Udalerri edo eskualde mailan jarduera askok lagundu dezakete zaintza-lanak orekatzen, banatzen eta aintzatesten. Gu zaintzen gaituzten eta gure komunitatea zaintzen duten pertsonen parte-hartzea ziurtatzea funtsezkoa da, haien egunerokotasunaren arabera zehazteko nolakoak izan behar duten gure herrietako espazio publikoek; zer azpiegitura diren beharrezkoak; zer mugikortasun-eredu lehenetsi behar den; ikuspegi horretatik zer ordutegi diren egokiak udalerriko zerbitzu publikoetarako, hezkuntza-edo osasun-zerbitzu etarako, edo saltokietarako.

Hausnarketa-taldea: "Zaintzen eskualdea"

Lan-talde bat sustatuko da hausnartzeko eta parte hartzeko. Helburua da gure eskualdean sarritan isilduta geratzen direnen ahotsak jasotzea. Jakitea zer behar duten eta zer proposamen zehatz dituzten gure ingurunean espazio atseginagoak, eskuragarriagoak eta erabat inklusiboak eraikitzeko.

Sentsibilizazio-kanpainak

Zaintzen errealitatea gizarteratzeko jarduerak honako hiru eremu nagusi hauetan:

- Gure eskualdeko eskoletan eta ikastoletan, berdintasunean eta norberaren zaintzan hezteko.
- Gure herritarrei lana ematen dieten enpresetan, merkataritza-guneetan eta gainerako entitateetan, gainkarga gehien jasaten duten pertsonen eskubideak zabaltzeko, haiekiko elkartasuna indartzeko eta egiten duten lana aintzat hartzeko.
- Herritarrek orokorrean. Izan ere, denok elkarren beharra dugula balioztatu behar da eta naturaltasunez onartu eskualde hau partekatzen dugun guztiok besteek emango diguten zaintza beharko dugula gure

bizitzako uneren batean edo bestean, geure
buruarekin ondo egoteko.

7 FUNTZIONAMENDU- ETA GOBERNANTZA-EREDUA

7.1 KUDEAKETA-ORGANOAK



ZUZENDARITZA BATZORDEA
TOLOSALDEA GARATZEN KONTSEILUA

IDAZKARITZA TEKNIKOA
TOLOSALDEA GARATZEN

ESKUALDE BILTZARRA
TOLOSALDEA SARETZEN
KONTSEILUA

FORO LEHIBERRI – TURISMO MAHAIA –
MERKATARITZA ELKARTEAK – HEZKUNTZA FOROA



ZUZENDARITZA BATZORDEA @28ALKATE

Planaren organo politikoa da. Plana betetzen dela eta ondo funtzionatzen duela zaintzen du. TOLOSALDEA SARETZEN ekimenaren testuinguruan martxan jarriko diren proiektuen eta jardueren gaineko erabakiak hartzeko eta ekimenaren helburuak betetzen direla zaintzeko ardura du.

Herritar guztien aurrean, orokorrean, eta *Tolosaldea Saretzen Kontseiluko* kideen aurrean kontuak azaltzen ditu. Kontseilu hori eskualdeko politika, gizarte, enpresa eta kultura arloko ordezkariak osatzen dute.

Erabakiak gehiengoaren bidez hartzen dira, eta kide bakoitzak boto-ehuneko bat du, ordezkatzeko duen udalak eginiko funts-ekarpenaren arabera dagokion ehunekoa, hain zuzen. Berdinketa izanez gero, Presidenteak kalitatezko botoa izango du.

Osaera:

Tolosaldeko eskualdeko 28 alkatek osatzen dute, eta **Tolosaldea Garatzen-eko Administrazio Kontseiluak** antolatzen eta izendatzen du batzorde hori. Era berean, Administrazio Kontseilu horrek berak egiten ditu Planaren Idazkaritza Teknikoari eta Koordinazioari dagozkion lanak.

Presidenteak bileren gai-zerrenda ezartzeko eskumena du, Idazkaritza Teknikoaren proposamenaren arabera.

Funtzioak:

- TOLOSALDEA SARETZEN Plana onartzea.
- Idazkaritza Teknikoak proposatutako hurrengo urteetako kudeaketa-planak onartzea.
- Funtsen esleipena onartzea Tolosaldea Saretzen funtsaren bidez
- Horien deialdiak eta ebazpenak onartzea

- Udaleko aurrekontuetako funtsak esleitzea
TOLOSALDEA SARETZEN koordinatzeaz eta
garatzeaz arduratzen den Idazkaritza
Teknikoaren aurrekontu operatiborako.

Funtzionamendua

Zuzendaritza Batzordea saio arruntean biltzen da urtean behin, kontuak eta Kudeaketa Plana onartzeko. Halaber, urtean behingo saio horretaz aparte, ezohiko saioetan ere biltzen da, Idazkaritza Teknikoak, presidenteak, edo gutxienez Batzordea sortu zuten lau kidek horrela eskatuz gero.

IDAZKARITZA TEKNIKO TOLOSALDEA GARATZEN

Planaren koordinazio-organoa da. Planaren jarduerak kudeatzeaz arduratzen da, eta Zuzendaritza Batzordearen organo hizketakidea da. Idazkaritza Teknikoa Tolosaldea Garatzen agentzian kokatzen da, eta Plana martxan jartzeko, betearazteko eta koordinatzeko eskumena du.

Idazkaritza Teknikoaren funtzionamendurako, Zuzendaritza Batzordeak aurrekontu-esleipen bat ezartzen du, eta Tolosaldea Saretzen funtsaren bidez ematen du aurrekontu hori.

Landa-ingurunea garatzeko kontuekin zerikusi zuzena duten gaietarako, Idazkaritza Teknikoak eskualdeko Landa Garapeneko Agentziarekin, Tolomendirekin, ziurtatuko du koordinazioa. Hain zuzen, agentzia horrek lankidetzak akordio bat bultzatuko du Planaren eremu horretako jarduerak kudeatzeko eta koordinatzeko.

Osaera:

Tolosaldea Garatzena atxikitako Idazkaritza Teknikoak lantalde tekniko espezializatu bat du (barnekoa edota kanpoko) TOLOSALDEA SARETZEN ekimena aurrera eramateko. Lantalde horrek lanaldi partzialean edo osoan jarduten du ekimen horretan. Idazkaritza Teknikoko jarduera gauzatzeko, Tolosaldea Garatzenek langileak kontratatu ahal izango ditu, edo kanpoko enpresak eta profesionalak erabili ahal izango ditu noizean behin edo normalean, Idazkaritzako koordinatzailearen arabera.

Idazkaritza teknikoko giza baliabideetan, gutxienez lanaldi osoko bi teknikari izango ditu. Bi teknikari horiek, dagokionean, merkataritza-edo lan-harremana hitzartuko dute Tolosaldea Garatzenekin beren jarduera gauzatzeko.

TOLOSALDEA SARETZEN ekimenaren Idazkaritza Teknikoa Tolosaldea Garatzen agentziako zuzendariak koordinatzen du. Zuzendariak taldeko beste kide bat proposatu

dezake koordinatzaile orokor gisa, Zuzendaritza Batzordeak onartu ondoren. Koordinatzaile orokor horrek dauka lantalde teknikoa osatuko duten kideak aukeratzeko ardura.

Funtzioak:

- Planaren betearazpena koordinatzea eta plana betetzen dela zaintzea.
- Zuzendaritza Batzordeak esleitzen dizkion TOLOSALDEA GARATZENeko jarduerak betearaztea.
- TOLOSALDEA SARETZEN ekimenaren urteko Kudeaketa Plana proposatzea Zuzendaritza Batzordeari
- Deialdien egutegia finkatzea, eragileek edo herritarrek Planaren lan-ildo ezberdinetara bideratutako proiektuak eta ekimenak aurkez ditzaten.

Funtzionamendua

Idazkaritza Teknikoak bere jarduera modu askean antolatzen du Tolosaldea Garatzen agentziaren zuzendaritzapean (zuzenean hari ematen dio bere jardueraren berri). Idazkaritza Teknikoaren kudeaketa urtero onartu behar du Zuzendaritza Batzordeak.

ESKUALDE BILTZARRA TOLOSALDEA SARETZEN KONTSEILUA

TOLOSALDEA SARETZEN Planaren aurrerapenei buruz kontsulta egiteko eta horiek kontrastatzeko gizarte-batzordea da *Tolosaldea Saretzen Kontseilua*. Elkarrizketarako, eztabaidarako eta proposamenak egiteko funtzioak ditu.

Funtzionamendua

Modu presentzialean batuko da gutxienez urtean behin, ekimenaren aurrerapenak azaltzeko eta Zuzendaritza Batzordeak egoki iritzitako gaien berri emateko.

Idazkaritza Teknikoak Kontseiluaren koordinatzaile gisa jardungo du, eta bere irizpidearen arabera antolatu ahal izango du, gaikako edo proiektuen araberrako batzordetan banaturik, kideen premiak eta nahiak kontuan izanda.

Alde horretatik, *Berrikuntzari eta Lehiakortasunari bultzada emateko Lehiberri Foroa* modu naturalean integratzen da eskualdeko biltzarrean, lehiakortasun eta berrikuntza gaietako gizarte-foro baten moduan.

Era berean, ORIO (Orio Merkatarien Elkarte) eta TOLOSA&CO (Tolosako Merkataritza-Ostalaritza eta Zerbitzu Elkarte) elkarteek eskutik merkatariek eskualdean antolatutako biltzarrak *Tolosaldea Saretzen Kontseiluak* deitutako eskualde mailako biltzarraren barnean eratzen dira, merkataritza eta ostalaritza inguruko foro sozial modura.

Tolosaldea Saretzen Kontseiluak eta bere baitako beste edozein gaikako forok eginiko proposamenak eta hartutako erabakiak entzun egingo ditu Zuzendaritza Batzordeak, eta, azkenazkenean, organo horrek hartuko ditu dagozkion erabakiak biltzarrak adierazitako gaien eta proposatutako ekintzen gainean.

Osaera:

Eskualdeko politika, erakunde, enpresa, gizarte
eta kultura arloetako ordezkariak osatzen dute.
Kideak lehen auzialdian onartuko ditu
Idazkaritza Teknikoko koordinatzaileak, eta
Zuzendaritza Batzordeak onartzeko eskaera
egingo du bere hurrengo osoko bilkuran.

7.2 FUNTZIONAMENDU-EREDUA



BI URTEKO PLAN OPERATIBOAK

EKIMEN
EGITURATZAILEAK

PROIEKTU
PROPIOAK

PARTE HARTZEKO
DEIALDIAK



TOLOSALDEA SARETZEN planaren xedea da eskualde berri bat modu erabakigarrian eraikitzea, gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-ikuspuntutik. Hasteko eta behin, zer-nolako eskualdea nahi den irudikatu da, eta ikuspegi hori abiapuntutzat hartuta, hiru funtsezko elementutan oinarritu da planaren estrategia: **4.0 industrian murgiltzea; ingurumenarekin harreman atsegina izatea eta Natura balioestea; eta lankidetzaren eta eko-erantzukizunaren balioak finkatzea.**

Planak hainbat lan-ildo jasotzen ditu eta hiru giltzarri handi horietan aurrera egiteko behar diren jarduerak marrazten ditu. Hala ere, hiru programa horien helburua, hein handi batean, plana martxan jartzeko eta modu eraginkorrean betearazteko ardura duten gizarte- eta erakunde-eragileen parte hartzea bultzatzea da.

Urteko Plan Operatibo baten bidez jarriko da martxan Plana. Hain zuzen, Plan Operatibo horretan zehaztuko dira aurreikusitako ekimenak eta martxan dauden proiektuak. Planak hiru proiektu-mota bereiziko ditu:

- **EKIMEN EGITURATZAILEAK. TOLOSALDEA SARETZENeko** sakontasun handieneko ekimenak izango dira, hainbat urtetan gauzatzekoak. Faseka jarriko dira martxan, eta h beharrezkoa da hainbat erakunde-eragileren arteko parte-hartzea. Era berean, finantzaketa hainbat iturritatik iristen da.
- **PROIEKTU PROPIOAK.** Idazkaritza Teknikoak egindako jarduerak dira. Tolosaldea Saretzen funtsera eginiko urteroko ekarpenaren bidez Idazkaritzak aurrekontu operatibo propioa du egitasmo horiek gauzatzeko. Jardueren finantzaketa beste eragile interesdun batzuekin lankidetzaz hitzarmenak eginez osatu daiteke.

- **PARTE HARTZEKO DEIALDIAK.** Idazkaritza Teknikoak martxan jarritako lehia izaerako deialdiak dira. Horietan, herritarrei eta gizarte-, enpresa- eta ingurumen-eragileei dei egiten zaie beren proposamenak egin ditzaten, hala badagokio. Bultzatutako jarduerak Tolosaldea Saretzen funtsaren bidez finantzatzen dira, eta beste eragile interesdun batzuekin lankidetzahitzarmenak eginez osatu daiteke finantzaketa hori.

7.3 SEGIMENDU-ADIERAZLEAK

ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK

Planak zer urrats ematen dituen eta zenbaterainoko eboluzioa izan duen jakiteko, aldizkako segimendu-mekanismo bat ezarri behar da, planean jasotako ekintzen zein ondorioen gainean.

Erreferentziazko adierazle estrategikoak lan-programa bakoitzean zehaztutako helburuekin lotzen dira. Testuinguruak programan ezarritako helburuen aldean duen eboluzioa neurtzeko balio dute. Lan-programa bakoitzerako erreferentziazko sei eta zazpi adierazle proposatzen dira. Horietako batzuk estatistika-iturri ofizialen bidez (Eustat, Gizarte Ekonomiaren Behatokia) eskuratzen dira zuzenean. Beste kasu batzuetan, adierazlea ad-hoc bildu beharko da. Nolanahi ere, emaitzen adierazleak dira, eta planak osotasunean duen inpaktua neurtzen saiatzen dira.

ADIERAZLE OPERATIBOAK

Era berean, planean aurreikusitako jarduerak betetzeak zuzenean zer ondorio dituen neurtzeko zenbait adierazle operatibo ere badira; egindakoaren adierazleak dira, funtsean. Programa bakoitzean aurreikusitako lan-ildoak zenbateraino bete diren aztertzen laguntzen dute adierazle horiek. Hauek dira hiru lan-programetako ekintza-ildo bakoitzerako proposatzen diren adierazle operatiboak: gauzatutako aurrekontua, gauzatutako ekintza-kopurua eta onuradun-kopurua, baldin eta dimentsio hori garrantzitsua bada.

LAN-PROGRAMA	ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK	Adierazlearen hasierako balioa	Azkeneko urte eskuragarria	Iruzkina
“EKO-INDUSTRIA 4.0” Helburu estrategikoak Enpresa-oinarria dinamizatzea eta indartzea 4.0 Industria aurreratua bultzatzea Elektro-mugikortasuneko interesgune bat kogaratzeko Nekazaritzako elikaduraren industriaren garapena ko-zuzentzea Gipuzkoan Ekonomia zirkularra eskualdeko enpresetan bultzatzea	Industria BEGd-aren %	%41,20	2012	Iturria: Eustat (A4 elkarte sektoriala)
	Industria-establezimenduen %, teknologia altuko eta ertain-altuko sektoreetan	%6,30	2016	Iturria: Eustat
	I+G gastua BPGd-ren % gisa	%0,90	2015	Iturria: Eustat
	Berrikuntza-gastua	31M€	2013-2015	Iturria: Eustat
	Enpresa kopurua elikagaien industrian	63	2016	Iturria: Eustat
	Elektro-mugikortasunarekin lotutako enpresa-kopurua	Ez eskuragarria	---	Ad-hoc bilketa

LAN-PROGRAMA	ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK	Adierazlearen hasierako balioa	Azkeneko urte erabilgarria	Iruzkina
“SMART EKO-ALDEA” Helburu estrategikoak Hiriko Industria Ingurune Eko-Arduratsua Eskualde Neutroa Karbonoan Urbanismo adimentsua, Naturan oinarritutako soluzioekin Landa-ingurune lehiakorra	Karbono-aztarna	Ez eskuragarria	---	Kalkulatu egin behar harko litzateke
	Kontsumo elektrikoa biztanle bakoitzeko: etxebizitzetan, zerbitzuetan industrian	1,14MWh/bizt., 1,27 MWh/bizt., 1,25 MWh/bizt.	2014	Aldizkako ad-hoc bilketa
	Garraio kolektiboko desplazamenduen %	9%	2011	Aldizkako ad-hoc bilketa
	Matrikulatutako ibilgailu elektrikoaren kopurua	Ez eskuragarria		Ad-hoc bilketa
	Sortutako HHS (kg/pertsona eta urte)	426	2015	Iturria: Eustat, Tolosaldea Mankomunitatea
	Birziklatutako HHS-en %	%58,30	2015	Iturria: Eustat, Tolosaldea Mankomunitatea
	Sortutako energia	2.369 PTB (Petrolioaren Tona Baliokidea)	2014	Aldizkako ad-hoc bilketa

LAN-PROGRAMA	ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLE ESTRATEGIKOAK	Adierazlearen hasierako balioa	Azkeneko urte erabilgarria	Iruzkinak
ELKARLANEAN: "KO" KOMUNITATEA Helburu estrategikoak Eskualde Hezitzailea eraikitzea Interneterako eskubidea bermatzea Eskualdez gaindiko lankidetzaz-modura lan egitea	Lehen mailako ikasketak eta hortik beherakoak dituzten hamar urteko edo gehiagoko biztanleen %	%40,80	2016	Iturria: Eustat
	Euskara kalean hitz egiten den hizkuntza modura	%44	---	Tolosarako datua
	Biztanleen jarrera hainbat gairen inguruan (ingurumena, kooperazioa, etab.)	Ez eskuragarria	---	Barometro bat egingo da, ondorioztatzeko nola ebolutzionatzen duten Tolosaldeko herritarren baloreak
	Internet erabiltzen duten 15 urte baino gehiagoko biztanleak	%76,70	2017	Iturria: Eustat
	Eragile sozialak 1000 biztanleko	9,1	2016	Iturria: Ekonomia sozialeko Euskal Behatokia
	Kooperatibak 1000 biztanleko	1,7	2016	Iturria: Ekonomia sozialeko Euskal Behatokia
	Ekintzaileak 1000 biztanleko	Ez eskuragarria	---	Ad-hoc bilketa

LAN-PROGRAMA	LAN-ILDOAK	Adierazle operatiboak
"4.0 EKO-INDUSTRIA"	Berrikuntzaren dinamizazioa	Garatutako programak Egindako ekintzak Egindako deialdiak Gauzatutako aurrekontua Mugitutako funtsak Onuradun-kopurua Parte-hartzaile kopurua Emaizak Udalerrien araberrako xehakapena Sektoreen araberrako xehakapena Jarduera-tipologiaren araberrako xehakapena Esku hartu duten entitate kudeatzaileak eta sustatzaileak
	Prestakuntza eta talentua barneratzea	
	Enpresa berritzaileak azeleratzea	
"SMART EKO-HERRIA"	Energia-eraginkortasuna	
	Elektro-mugikortasuna	
	Hondakinen kudeaketa	
	Naturan oinarritutako soluzioak	
	Landa-munduaren bideragarritasuna eta iraunkortasuna	
"ELKARLANEAN: 'KO' KOMUNITATEA"	Eskualde hezitzailea	
	Eskualde euskalduna	
	Eskualde digitala	
	Zaintzen eskualdea	
	Eskualde kolaboratzailea	

7.4 BALIABIDE PROPIOAK ETA FUNTSEN MOBILIZAZIOA

FUNTS PROPIOAK 2018-2025

4.0 EKO-INDUSTRIA	0,40
SMART EKO-ALDEA"	0,40
"ELKARLANEAN: 'KO' KOMUNITATEA	0,20
TOTALA	1,00

ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN KANPOKO FUNTSAK 2018-2025

4.0 EKO-INDUSTRIA	1,50
SMART EKO-ALDEA"	1,50
"ELKARLANEAN: 'KO' ESKUALDEA"	1,00
TOTALA	4,00

FUNTS MOBILIZATUAK 2018-2025

MOBILIZATUTAKO FUNTSAK	5,00
-------------------------------	-------------

TOLOSALDEA SARETZEN 2018-2025					
FUNTS MOBILIZATUAK (mila eurotan)					
LAN PROGRAMA 4.0 EKO-INDUSTRIA	FUNTS PROPIOAK	FUNTS MOBILIZATUAK			GUZTIRA
		UDALERRIAK (TG)	EUSKO JAURLARITZA + GFA	EB	
Berrikuntzaren dinamizazioa	200,0	80,0	500,0	100,0	880,0
4.0 EKO-INDUSTRIA Hedapen- eta sentsibilizazio-jarduerak berrikuntzaren, 4.0 industria aurreratuaren eta ekonomia zirkularren inguruan					
4.0 ERAGILEAK Berrikuntzaren, 4.0 industria aurreratuaren eta eko-berrikuntzaren eragile mobilizatzaileak					
ASTINDU! Ideia berriak astintzea					
ELIKA-INDUSTRIA Nekazaritzako elikagaiei bultzada ematea					
MERKATARITZA BAI – Merkataritza dinamizatzeko jarduerak					
Prestakuntza eta talentua barneratzea	100,0	20,0	200,0	100,0	420,0
TALENTUA Prestakuntza eta gaikuntza espezializaturako agenda					
E-UNIBERTSITATEA Unibertsitateko graduak eta graduondokoak ezartzea elektro-mugikortasunaren eremuan					
Enpresa berritzaileak azeleratzea	100,0	100,0	200,0	200,0	600,0
EKIN FONDOA Enpresa berritzaileentzako baliabideak					
TEKNO-LAB-AK Laborategi kolaboratiboak					
EMUGI TOLOSALDEA Elektro-mugikortasuneko enpresa-parkea					
TOTAL	400,0	200,0	900,0	400,0	1.900,0

TOLOSALDEA SARETZEN 2018-2025					
FUNTS MOBILIZATUAK (mila eurotan)					
LAN PROGRAMA SMART EKO-ALDEA	FUNTS PROPIOAK	FUNTS MOBILIZATUAK			GUZTIRA
		UDALERRIAK (TG)	EUSKO JAURLARITZA + GFA	EB	
Energia-eraginkortasuna EKO-ERAIKI Eraikuntzak eta barrutiak birgaitzeari bultzada ematea, sarbide eta energia-eraginkortasun parametroen arabera TOLOSALDEA ZERO ENERGY Energia-kontsumo ia zeroa eraikin publikoak (Nearly Zero Energy Buildings - NZEB) TOLOSARGI Argiztapena eta semaforoak sistema eraginkorragoekin ordeztzeko prozesua SMART ENERGIA Adimentsua	80,0	240,0	240,0	80,0	640,0
Elektro-mugikortasuna METRO ORIA Proiektu Intermodala METRO ORIA (Metro Elektriko Adimentsua Tolosaldea-Goierri) TOLOSALDEA OINEZ Oinezkoentzako bideak eta bidegorriak egokitzea IBILGAILU ELEKTRIKOAK Ibilgailu elektrikoak erostea eta erabiltzea sustatzeko politika SMART MUGI Mugikortasun Adimentsua	120,0	60,0	120,0	80,0	380,0
Hondakinen kudeaketa TOLOSALDEA ZERO WASTE Hondakinen kudeaketa eko-arduratsua	40,0	60,0	60,0	20,0	180,0
Naturan oinarritutako soluzioak N-1 BERDEA N-1aren landare-errezela ORIA, HIRIA Oria ibaia, espazio lehengoratu eta berririo balioztatua	80,0	180,0	60,0	40,0	360,0
Landa-munduko bideragarritasuna eta iraunkortasuna MILA-BAT "1.000 baserri bateratu, 1.000 enpresa iraunkor"	80,0	60,0	120,0	80,0	340,0
TOTAL	400,0	600,0	600,0	300,0	1.900,0

TOLOSALDEA SARETZEN 2018-2025					
FUNTS MOBILIZATUAK (mila eurotan)					
LAN PROGRAMA ELKARLANEAN: "KO" ESKUALDEA	FUNTS PROPIOAK	FUNTS MOBILIZATUAK			GUZTIRA
		UDALERRIAK (TG)	EUSKO JAURLARITZA + GFA	EB	
Eskualde hezitzailea HEZI TA HAZI Eskualde hezitzailea	40,0	100,0	100,0	40,0	280,0
Eskualde euskalduna EUSKARALDEA Tolosaldea, Euskaraldea	40,0	100,0	90,0	..	230,0
Eskualde digitala TOLOSALDEA WI-FREE Landa-eremuaren konektibitatea	40,0	50,0	60,0	30,0	180,0
Eskualde konurbazioa ESKUALDEA + Konurbazioan lan egiten; eskualdez gairikoko ekimenak	40,0	100,0	100,0	..	240,0
Zaintzen eskualdea ZAINTZA Zaintzen eskualdea	40,0	100,0	100,0	30,0	270,0
TOTAL	200,0	450,0	450,0	100,0	1.200,0



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputazioen Foral
de Gipuzkoa



GRAN
GIPUZKOA



TOLOSALDEA
GARATZEN

n a i d e r